

AURKIBIDEA

DANTZARIAK 65 ~ 2020

AGURRA



3 EDITORIALA
EDITORIAL

EKINTZAK



6 BIZKAIKO
DANTZARI EGUNA
Zamudio



16 EUSKAL HERRIKO
DANTZARI EGUNA
2020

ELKARRIZKETA



18 OIER
ARAOLAZAREKIN
hizketan, dantza
eta genero-identitatea

ARTIKULUAK



28 TRAPUJALE
eta Zabarre



41 EN DANZA CON
EUSKO IKASKUNTZA
(1918-2018)



65 JON BAGÜÉS:
Eresbili eta musikari
lotutako bizitza

ARTIKULUAK



75 La danza vasca
EN ARGENTINA



82 TECHNO-FOLKLORE
AURREKOA
eta etorkizun antropologia



85 TXALAPARTA
euskal erritmo
eta soinu tresna

ARTIKULUAK



99 LA TXALAPARTA
como espectáculo



106 ¿Dónde consiguió
IPARRAGUIRRE
SU CARNET DE
CANTAUTOR?



113 DOS SOCIEDADES
DE BAILE VASCO-
NAVARRAS en la
villa y corte de Madrid

ARTIKULUAK

ARGITALPENAK



136 Deustuko
ANDREEN
AURRESKUA



138 LIBROS, CDS
Y DVDS



EDITORIALA



Urte atipiko honetan, *Euskal Dantzarien Biltzarren* lehendakaritza ordezkatu dugu. Joseba Altuberen zuzendaritza zaindutik Pedro Romeok zuzenduko duen ibilbide itxaropentsu batera pasatu gara. Era berean, aldaketa bat gertatu da erakundearen koordinazioan (Enara Iruretagoiena utzi eta Erika Garciak hartu du kargua). Etorkizunerako nolabaiteko ikuspegiarekin eta gaur bizi behar dugun egoera ikusita, ez dakigu aldaketa horrek zer ekar dezakeen entitatean, talde elkartuetan eta haien osagaien barruan, edo EDBren proiektu beteranoaren mesedetan bildutako pertsona multzoari begira. Edonola ere, zorte ona opa diegu bi taldeei (irteerakoei eta baita sarrerakoei ere) eta animatu nahi diegu sortzen ari den errealitate berri honi aurre egiteko.

Era berean, COVID-19ren pandemia suntsitzaileak markatu duen urtea izan da; eta horrek bere arrasto tristea utzi du eta utziko du komunitate osoaren egoera pertsonal, sozial, sanitario eta ekonomikoan. Halere, modu erabakigarrian eragiten dio kulturaren eta animazio soziokulturalaren sektore baztertuari, edo bereziki gogor eta odoltsu eragiten dio eremu ez-profesionalean, jai-jarduaren inguruan antolatuta (emanaldiak edo erakusketak, kontzentrazio desberdinak, etab.). Halaber, lurraldeko *Dantzari Egunak* eta *Euskal Herriko Dantzari Eguna 2020* baliabide telematikoen bidez egitera behatu du.

Errutinak, ohiturak, tradizioak eta sozialki mugiezintzat jotzen diren zutabeak nahastu dituzten konfinamendu- eta larritasun-denborak. Hausnarketa serioa, komunitatearen erantzukidetzunerako, elkartasunerako eta errealitate berria berritzeko edo egokitzeko aldia ere bada. Testuinguru horretan, "*Dantzariak*" aldizkariak kultura tradizionalaren bultzadaren bila eta ekarpenak edo "izerdi berria" bilatzen jarraitu behar du zirkulu akademikoetan, entitate klasikoetan edota ikertzaile pribatuetan, dantza taldeetan edo beraien balizko kideengan, eta bultzatzen gaituen helburutik gertu dauden ikerlari guztietan.

Konfinamenduaren zailtasunak, komunikazio bideak, derrigorrezko distantzia soziala edo ezinbesteko murrizketak izan arren, berriro ere "*Dantzariak*" aldizkariaren ale berria eskaintzen dugu, irakurle eta jarraitzaile guztien gustukoa izango delakoan gaudelarik.

Josu Larrinaga Zugadi

Dantzariak aldizkariaren zuzendaria





EDITORIAL



En este atípico año hemos asistido al relevo de presidencia en el seno de *Euskal Dantzarien Biltzarra*, basculando de la cuidada gestión de Joseba Altube a una esperanzadora trayectoria dirigida por Pedro Romeo. Del mismo modo, se ha producido un cambio en la coordinación de la entidad (dejándonos Enara Iruretagoiena y cogiendo el cargo Erika García). Con cierta perspectiva de futuro y ante la actual situación que nos toca vivir, no sabemos qué nos puede deparar dicho cambio de cara a la entidad, grupos asociados y sus componentes o al conjunto de personas aglutinadas en aras al proyecto veterano de EDB. Sea como sea, deseamos suerte y ánimo a ambos equipos (saliente como al entrante) cara a esta nueva realidad emergente.

También ha sido el año marcado por la devastadora pandemia del COVID-19, la cual ha dejado y dejará su triste impronta en la situación personal, social, sanitaria y económica de la comunidad en su conjunto, afectando de modo decisivo en el siempre relegado sector de la cultura y la animación sociocultural o incidiendo de un modo especialmente sangrante en el ámbito no profesional articulado en torno a la actividad festiva (actuaciones o exhibiciones, concentraciones diversas, etc.). Además ha obligado a que los *Dantzari Eguna* territoriales y el *Euskal Herriko Dantzari Eguna 2020* se realicen en el manido recurso telemático.

Tiempo de confinamiento y zozobra que han trastocado rutinas, costumbres y tradiciones o incluso, pilares considerados socialmente como inamovibles. Periodo también para la seria reflexión, corresponsabilidad comunitaria, la solidaridad y la renovación o adaptación a la denominada nueva realidad. En este contexto,

la revista “*Dantzariak*” también debe seguir buscando el impulso de la cultura tradicional y la búsqueda de aportaciones o “nueva savia” en artículos gestados en los medios académicos, entidades clásicas y/o investigadores particulares, grupos de danza o sus miembros potenciales y entornos cercanos al objetivo que nos anima.

Pese a las dificultades del confinamiento, los canales de comunicación, la obligada distancia social o las inevitables restricciones volvemos a ofrecer un nuevo número de la revista “*Dantzariak*” que esperamos sea del agrado de todas las personas lectoras y seguidoras de la misma.

Josu Larrinaga Zugadi

Director de Dantzariak



ÉDITO



En cette année atypique, nous avons assisté au remplacement de la présidence au sein d'*Euskal Dantzarien Biltzarra*, passant de la gestion prudente de Joseba Altube à une carrière pleine d'espoir dirigée par Pedro Romeo. De même, il y a eu un changement dans la coordination de l'organisation (Enara Iruretagoiena a quitté le poste et Erika Garcia a pris ses fonctions). Avec une perspective incertaine pour l'avenir compte tenu de la situation actuelle, nous ne savons pas ce que ce changement peut apporter à l'entité, aux groupes associés et leurs composantes, ou au groupe de personnes réunies sur le projet vétérinaire d'EDB. Quoi qu'il en soit, nous souhaitons bonne chance et encourageons les deux équipes (sortantes comme entrantes) face à cette nouvelle réalité émergente.

Ce fut également l'année marquée par la pandémie dévastatrice du COVID-19, qui a laissé et laissera sa triste empreinte sur la situation personnelle, sociale, sanitaire et économique de la communauté dans son ensemble, affectant de manière décisive le secteur de l'animation culturelle et socioculturelle ou ayant un impact particulièrement important sur la sphère non professionnelle articulée autour de l'activité festive (performances ou expositions, rassemblements divers, etc.). Il a également contraint le *Dantzari Eguna* territorial et le *Euskal Herriko Dantzari Eguna 2020* à se dérouler dans la ressource télématique éculée.

Tant d'enfermement et d'anxiété qui ont bouleversé les habitudes, les coutumes et les traditions ou même les piliers qui sont socialement considérés comme inamovibles. Période également de réflexion sérieuse, de co-responsabilité communautaire, de solidarité et de renouveau ou d'adaptation à la soi-disant nouvelle réalité. Dans ce contexte, le magazine "*Dantzariak*" doit également continuer à rechercher l'impulsion de la culture traditionnelle et la recherche de contributions ou de "nouvelle vie" dans des articles produits dans les milieux académiques, les entités classiques et / ou les chercheurs privés, les groupes de danse ou leurs membres potentiels et des environnements proches de l'objectif qui nous anime.

Malgré les difficultés de confinement, les canaux de communication, la distance sociale obligatoire ou les contraintes inévitables, nous proposons à nouveau un nouveau numéro du magazine "*Dantzariak*" qui, nous l'espérons, plaira à tous ses lecteurs.

Josu Larrinaga Zugadi
 Directeur de *Dantzariak* 

BIZKAIKO *DANTZARI EGUNA*

ZAMUDIO, 2020KO MAIATZAREN 17AN

- Egilea: Bizkaiko Dantzarien Biltzarra.

Argazkiak: Fco. Javier Arriaga, "Txebi" eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarra. -

*Bizkaiko
Dantzari
Eguna
2020*



*Bizkaiko Dantzari Eguna urteroko jai nagusia da Bizkaiko
Dantzarien Biltzarrean elkartutako talde eta dantzari guztientzat.*

Historia pixka bat egiten, 1977an “1. Euskal Folklore Astea” izenarekin hainbat ekitaldi antolatu ziren, gerora Bilbon 1980an ospatu zen lehenengo *Bizkaiko Dantzari Eguna* izango zenaren enbrioiatzat har genitzaizkenak.

Ordutik, eta era jarraituan, 39 edizio egin dira, kontutan harturik 1983an bertan behera utzi behar izan zirela Bizkaia ia erabat suntsitu zuten uholdeen ostean. Lehenengo urte hauetan Dantzari Eguna data finko gabe ospatu zen.

- 1980. BILBAO. Urriak 19.
- 1981. BARAKALDO. Ekainak 18.
- 1982. GETXO. Maiatzak 30.
- 1983. Bertan behera. Irailean ospatzekoa zen, beraz bertan behera utzi behar izan zuten.
- 1984. LEA-ARTIBAI. Ekainak 17.
- 1985. IGORRE – ARRATIA. Ekainak 16.
- 1986. DURANGO. Maiatzak 25.
- 1987. MUNGIA. Maiatzak 10.
- 1988. URDUÑA. Maiatzak 15.
- 1989. SESTAO. Maiatzak 7.
- 1990. BILBAO. Maiatzak 20.
- 1991. ZALLA. Maiatzak 19.
- 1992. LEIOA. Maiatzak 17.
- 1993. ONDARROA. Maiatzak 16.
- 1994. BERMEO. Maiatzak 15.
- 1995. LEMOA. Maiatzak 21.
- 1996. ERMUA. Maiatzak 19.
- 1997. GORLIZ. Maiatzak 18.

El *Bizkaiko Dantzari Eguna*, es la fiesta anual por antonomasia de los dantzaris y los grupos asociados en Bizkaiko Dantzarien Biltzarra.

Haciendo un poco de historia recordaremos que en 1977 y con la denominación de “1. Euskal Folklore Astea” se organizaron una serie de actos que podríamos considerar el embrión de los que posteriormente sería el primer *Bizkaiko Dantzari Eguna*, celebrado en Bilbao en 1980.

Desde entonces y de forma continuada han sido 39 las ediciones, teniendo en cuenta que el año 1983 hubo de suspenderse debido a las inundaciones que asolaron buena parte de Bizkaia. En estos primeros años el Dantzari Eguna se celebró sin fecha fija.

- 1980. BILBAO 19 de octubre.
- 1981. BARAKALDO 18 de junio.
- 1982. GETXO 30 de mayo.
- 1983. Suspendido. La idea inicial era hacerlo en Setiembre y hubo que suspenderlo.



- 1998. SANTURTZI. Maiatzak 17.
- 1999. SONDIKA. Maiatzak 16.
- 2000. BILBAO. Maiatzak 21.
- 2001. LEIOA. Maiatzak 20.
- 2002. GERNIKA. Maiatzak 19.
- 2003. BASAURI. Maiatzak 11.
- 2004. ABADIÑO. Maiatzak 16.
- 2005. ERANDIO. Maiatzak 15.
- 2006. MUNGIA. Maiatzak 21.
- 2007. BILBAO. Maiatzak 6.
- 2008. MARKINA. Maiatzak 18.
- 2009. BERMEO. Maiatzak 17.
- 2010. SONDIKA. Maiatzak 16.
- 2011. GETXO. Maiatzak 15.
- 2012. UGAO. Maiatzak 20.
- 2013. UGAO. Maiatzak 19.
- 2014. ELORRIO. Maiatzak 18.
- 2015. ZALLA. Maiatzak 17.
- 2016. LEKEITIO. Maiatzak 15.
- 2017. TRAPAGARAN. Maiatzak 21.
- 2018. BILBAO. Maiatzak 20.
- 2019. SESTAO. Maiatzak 19.
- 1984. LEA-ARTIBAI. 17 de junio.
- 1985. IGORRE – ARRATIA. 16 de junio.
- 1986. DURANGO. 25 de mayo.
- 1987. MUNGIA. 10 de mayo.
- 1988. ORDUÑA. 15 de mayo.
- 1989. SESTAO. 7 de mayo.
- 1990. BILBAO. 20 de mayo.
- 1991. ZALLA. 19 de mayo.
- 1992. LEIOA. 17 de mayo.
- 1993. ONDARROA. 16 de mayo.
- 1994. BERMEO. 15 de mayo.
- 1995. LEMOA. 21 de mayo.
- 1996. ERMUA. 19 de mayo.
- 1997. GORLIZ. 18 de mayo.
- 1998. SANTURTZI. 17 de mayo.
- 1999. SONDIKA. 16 de mayo.
- 2000. BILBAO. 21 de mayo.
- 2001. LEIOA. 20 de mayo.
- 2002. GERNIKA. 19 de mayo.
- 2003. BASAURI. 11 de mayo.
- 2004. ABADIÑO. 16 de mayo.
- 2005. ERANDIO. 15 de mayo.
- 2006. MUNGIA. 21 de mayo.

Zerrendan ikusi ahal dugunez, 1986an finkatu zen maiatza hilabete moduan, eta horren ostean hirugarren igandea data finko moduan gelditu zen. Salbuespen bakan batzuetan izan ezik, eta gure elkartekoak ez diren egoeren ondorioz, hala nola hauteskundeen ondorioz edo egun horretan egitea eragotzi zuten beste ekitaldi batzuen ondorioz, ez da aldatu maiatzeko hirugarren igandeko data, Bizkaiko Dantzarien Biltzarreko taldeen Batzarren erabakiarekin bat egiten.



Gure jaiaren beste ezaugarri bat Bizkaiko geografian zehar hedatzea da, edizio bakoitzean antolakuntza lanetan ibilitako Talde eta Udalek inguruetakoko lekuak eta herriak harrotasunez erakutsi dituztelarik, gainontzeko dantzariak zein publiko orokorrak ezagutu ahal izateko, harmonian eta giro onean joaten direnak jai honetara.

Baina beharbada edizio guztietan garrantzitsuena izan dena gure dantzari eta taldeen papera izan da, inplikazioa eta gogo bizia dantzan, une bakoitzaren, dantza bakoitzaren, kalejira bakoitzaren, bokata edo bazkariaren gozamen, eta azkenik arratsaldean egiten den erromeriarik arrakastatsuen eta herrikoien.

Urtean zehar aurrez egin beharreko entseguak, dantzak prestatu eta ikastea. Horiek transmititzea, janzkera zaintzea eta hainbat belaunalditako kolektibo handi batentzat suposatzen duen ahalegin guztia egitea, non jasota geratzen baita taldeen prestaketa eta talde bakoitzaren eta multzoaren kalitate maila, horietan une errepikaezinak eta kalitate handikoak aurki daitezke. Horiek ere Bizkaiko Dantzari Egurenaren parte dira.

- 2007. BILBAO. 6 de mayo.
- 2008. MARKINA. 18 de mayo
- 2009. BERMEO. 17 de mayo.
- 2010. SONDIKA. 16 de mayo.
- 2011. GETXO. 15 de mayo.
- 2012. UGAO. 20 de mayo.
- 2013. UGAO. 19 de mayo.
- 2014. ELORRIO. 18 de mayo.
- 2015. ZALLA. 17 de mayo.
- 2016. LEKEITIO. 15 de mayo.
- 2017. TRAPAGARAN. 21 de mayo.
- 2018. BILBAO. 20 de mayo.
- 2019. SESTAO. 19 de mayo.

Como podemos observar en esta relación será el año de 1986 cuando se fije el mes de mayo y con posterioridad será el tercer domingo el que quede como fecha fija. Salvo en raras excepciones y debido siempre a situaciones ajenas a nuestra asociación, bien por eventos tales como elecciones o bien por otros que imposibilitaron la realización en esta fecha, no se ha modificado la fecha del tercer domingo de mayo, acuerdo de la asamblea de grupos de Bizkaiko Dantzarien Biltzarra.

Otra de las características de nuestra fiesta, es la intencionalidad de llevarla a través de toda la geografía de Bizkaia, enseñando con orgullo los lugares y localidades por parte de los grupos involucrados en esas ediciones, conjuntamente con los ayuntamientos respectivos, para que puedan ser conocidos por el resto de dantzaris y público en general, que acude a esta fiesta de la danza en armonía y buen ambiente.



70 eta 80 artean izaten dira urtero parte hartzen duten taldeak. Horien guztien artean, gutxienez 3.500 lagunek parte hartzen dute. Horiez gain, antolatzaileek, boluntario, aurkezle, argazkilaria, musikari, artisau, publiko eta, oro har, kolaboratzaile eta erakunde babesleek, egutegian ezinbesteko hitzordu bihurtzen dute egun hau dantza tradizionalaren zale guztientzat.

Aurten, 2020, Zamudion ospatuko genuen maiatzaren 17an. Covid-19ak eragindako egoera dela eta, gure etxeetatik eta sare sozialetan gogoan hartu behar izan genuen egun hau, Youtube, Facebook eta www.dantzari.net gure webgunearen bidez alegia, bideo baten emandiarekin.



Josemari Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren lehendakaria 2020

Emanaldiaren hasieran Jose Maria Oyarzabal, Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren presidenteraren komunikatu batekin hasi zen:

Pero quizás lo más importante a través de todas las ediciones haya sido el papel de nuestros dantzaris y sus grupos, la implicación y entusiasmo bailando, el disfrute de cada momento, de cada baile, de los pasacalles, el bocata o la comida, y finalmente la más exitosa y popular romería que se celebra a la tarde.

Los ensayos previos durante el año, la preparación y aprendizaje de los bailes. La transmisión de estos, el cuidado de la indumentaria y todo el esfuerzo que supone para un gran colectivo de diferentes generaciones y donde queda constancia de la preparación de los grupos y del nivel de calidad de cada uno de ellos y del conjunto, pudiendo encontrar momentos irrepetibles y de gran calidad.

Son entre 70 y 80 los grupos que habitualmente año tras año vienen participando. A su vez, entre todos ellos, participan no menos de 3.500 personas. Además de éstos, la organización, los equipos de voluntarios, presentadores,



“Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak, gaur guretzat oso berezia den egun bat gogora ekarri nahi dugu: Bizkaiko Dantzari Eguna. Izan ere, Covid-19k eragindako osasun-alerta egoeragatik izan ez balitz, Zamudion izango ginatke denok batera gure urteko jaiaz gozatzen.

Gure folklorea eta gure dantza tradizionala bizirik mantentzeko dugun gogoa ez da lausotzen egoera horren ondorioz, eta, horregatik, Dantzari Egunaren sentimendua gure etxeetara eramatea proposatzen dugu, “Kontrapas” bat dantzatzuz, dagoeneko gurekin ez dauden guztiak omentzeko eta, aldi berean, gure osasuna zaintzeko egunero lan egiten duten osasun-langileei eta gainerako kolektiboek eskerrak emateko. Haiek gabe ezinezkoa izango zen.

Eta urrian ez bada, 2021eko maiatzean, Bizkaiko Dantzari Egun partikularrarekin gozatzeko itzaropenarekin.

Eskerrik asko eta animo”.

fotoğrafos, músicos, artesanos, público en general y los colaboradores e instituciones patrocinadoras, hacemos de este día una cita inexcusable en el calendario para tod@s los amantes de la danza tradicional.

Este año 2020, íbamos a celebrarlo en Zamudio el día 17 de mayo. Debido a la situación producida por la “Covid-19”, nos vimos en la obligación de recordar este día tan especial desde nuestras casas y a través de las redes sociales, Youtube, Facebook, y nuestra página web, www.dantzanet.net. con la emisión de un video.

El acto consistió primeramente en la lectura de un comunicado, a cargo de José María Oyarzabal, presidente de Bizkaiko Dantzarien Biltzarra.

“Desde Bizkaiko Dantzarien Biltzarra, hoy recordamos un día que es muy especial para nosotros, el Bizkaiko Dantzari Eguna, ya que de no ser por la situación de alerta sanitaria provocada por el Covid-19, nos encontraríamos en Zamudio disfrutando todos juntos de nuestra fiesta anual.

Nuestro afán por mantener vivo nuestro folclore y nuestra danza tradicional no se ve empañado por esta situación, por lo que proponemos trasladar el sentimiento del Dantzari Eguna a nuestras casas bailando un “Kontrapas” que sirva también de homenaje para todos aquellos que ya no están con nosotros y que al mismo tiempo sirva de aplauso para agradecer a los sanitarios y demás colectivos que trabajan a diario para velar por nuestra salud. Sin ellos no habría sido posible.



Jarraian, bideoan bi dantzarik “Kontrapas” bat dantzatu zuten jadanik gure artean ez dauden gogoan eta gure osasunaren alde egunerok lan egiten duten kolektiboen alde. Haiek gabe ez zen posible izango.

Ondoren, etxean gorderik zeudenean 70 taldek bidalitako aurreko urteetako bina argazki eta logotipoekin egindako bideoa agertu zen, haien guztien inplikazioaren neurria eta guztiontzako (dantzari, talde eta federazioa) egun honek duen garrantzia ikusi ahal izan delarik. Iniziatibaren harrera ona izan zen, gure Youtubeko kanalean 3000 ikustaldi inguru izan zirelarik.

Egun horretan bertan, 21:00etan, ETB1en “Oholtzan” saioan eta “Bizkaiko Dantzari Eguna gogoratuz” izenarekin, gu guztiontzako horren berezia den data hau bergogoratu ahal izan genuen, 2016ko Lekeitioko eta 2018ko Bilboko Dantzari Egunetako irudi ikusgarrienekin osatutako emanaldiarekin.

Y con la esperanza de encontrarnos, si no en Octubre, en Mayo del próximo año 2021, disfrutemos con nuestro *Bizkaiko Dantzari Eguna* particular.”

Seguidamente dos dantzaris interpretaron un “kontrapas” como homenaje a todos aquell@s que ya no están entre nosotros y que sirvió de aplauso para agradecer a los sanitarios y demás colectivos que trabajan a diario para velar por nuestra salud. Sin ellos no habría sido posible.

Fueron 70 los grupos que participaron en esta iniciativa. A todos se les pidió 2 fotografías y su logotipo, formando una sucesión de imágenes donde se ha podido ver la implicación de todos ellos, así como la importancia que tiene este día para tod@s nosotr@s, dantzaris, grupos y federación. Siendo la acogida importante, casi 3000 visitas del video en nuestro canal de Youtube.

El mismo día a las 21:00, en el programa “Oholtzan” de ETB1, con el título: “Bizkaiko



Deia egunkariak ere Bizkaiko Dantzari Egunaren atzerapenari buruzko artikuloa argitaratu zuen, gure jaia gogoratzeko bideoaren inizatiba ezagutaraziz.

Erantzuna oso positiboa izan zen orokorrean bai sareen bidez zein zuzenean jasotako eskertzeen arabera.

Gure partez, eskertu eta positiboki baloratu nahi ditugu konfinamenduan zehar sareetan, saiakuntza-bideoetan, emanaldi birtualetan eta abarretan islatu dituzten taldeen ekimen guztiak.

Hau guztia dela eta, azkenengo hitz batzuk denak entsaiatzen jarraitzeko animatzeko, lokaletara itzultzea posible den momentuan.

Guztioi gustatzen zaiguna ilusioz egiten jarraitzera animatzen zaituztegu, dantzatzea besterik ez baita. Gure auzo eta herrietako plazetan dantzatzea, baita erromerietan, agertokietan eta ahal dugun guneeetan ere noski.

Dantzari Eguna gogoratuz” también se pudo recordar esta fecha tan especial para todos nosotros, con la emisión de imágenes de los dantzari egunas de Lekeitio 2016 y Bilbao 2018.

El periódico DEIA, publicó un artículo relativo al aplazamiento del *Bizkaiko Dantzari Eguna*, y dando a conocer la iniciativa del video recordatorio de nuestra fiesta.

La respuesta fue en general muy positiva tanto en redes como por los agradecimientos recibidos.

También queremos agradecer y valorar positivamente todas y cada una de las diferentes iniciativas de los grupos que han plasmado en redes durante el confinamiento, videos de ensayos, actuaciones virtuales, etc.

Por todo ello, solo nos queda animaros a todos a seguir ensayando en cuanto se pueda volver a los locales.



Gure dantzak laguntzen eta zuzentzen dituen musikaren soinuak dantzatzea, gure taldekide banaezin musikariek, txistulariek, gaitariek, trikitilariek, perkusionistek eta abarrek interpretatutako melodiak alegia.

Gure bizitzako koreografiak eta ilusioak osatzen dituzten melodiak dantzatu eta interpretatzea, "Covid-19"ak nahastu dituztenak eta ziurgabetasunaren bidetik eraman gaituztenak.

Indartsuak izan behar dugu eta guztion artean elkar animatu behar dugu garatzen dugun eta euskal kulturarentzat oro har eta bereziki euskal dantzarentzat hain garrantzitsua den lan garrantzitsuarekin jarraituz.

Elkarri animoak eman, eta gure taldeek gizarteak, auzoetan eta herrietan egiten duten lan garrantzitsuak ohar gaitezen.

Bizkaiko dantza talde guztiei!!!

Bizkaiko Dantzari Guztiei!!!

Bizkaiko Dantza Zaleuei!!!

BESTE BARIK: ESKERRIK ASKO!!!

Animaros a seguir con la ilusión de hacer aquello que nos gusta, que no es otra cosa que bailar. Bailar en las plazas de nuestros barrios y pueblos, en las romerías, en los escenarios y en aquellos espacios donde nos sea posible.

Bailar al son de la música que acompaña y dirige nuestros bailes, melodías interpretadas por nuestros inseparables compañeros músicos, txistularis, gaiteros, trikitilaris, perkusionistas, etc.

Erromeria Luhartz taldearekin

Bailar e interpretar las melodías que forman las coreografías e ilusiones de nuestras vidas, que se han visto trastocadas por la "Covid-19" y nos han llevado por la senda de la incertidumbre.

Debemos ser fuertes y animarnos entre todos a continuar con la importante labor que desarrollamos y que tan importante es para la cultura vasca en general y para la danza vasca en particular.

Animarnos a ser conscientes de la importante labor social que nuestros grupos desarrollan en la sociedad, en los barrios y pueblos...



Talde Partehartzaileak:

Agintzari, Agurra, Alkartasuna, Amaia, Andra Mari, Aratz, Aritz Berri, Arriskugarri, Artie, Artxube, Basauritar, Batasuna, Bekosolo, Berantzagi, Berriztasuna, Beti Jai Alai, Bihotz Alai, Bihotz Gaztea, Danetarako Danok, Durundi Barri, Edurre, Egunsenti, Eguzki, Ekintza, Elai Alai, Enarak, Erreka Ortu, Etorki, Etorkizuna, Eusko Lorak, Gaztedi, Goi Alde, Goiherri, Gorantzaileak, Gure Herria, Gure Ohiturak, Hiru Bat, Ibai Arte, Ibai Lorak, Ibarakaldu, Iluntze, Intzarri, Iratxo Gorria, Irrintzi Alai, Irutasun, Itxartu, Itxas Alde, Itxas Argia, Kurutze, Lainomendi, Lorabarri, Mahastiako, Mamarigako, Mendi Alde, Mendi-Harana, Mendipe, Mikel Deuna, Mikeldi, Oin Arin, Salbatzaile, Salleko, Trabudu, Txikiak Txiki, Txoritxu Alai, Urdaibai, Uri Oste, Uztargi, Zasi Eskola, Zerutxu, Zugaitza.

Bizkaiko Dantza Talde Guztiei!!!

Bizkaiko Dantzari Guztiei!!!

Bizkaiko Dantza Zaletuei!!!

BESTE BARIK: ESKERRIK ASKO!!!

Grupos Participantes:

Agintzari, Agurra, Alkartasuna, Amaia, Andra Mari, Aratz, Aritz Berri, Arriskugarri, Artie, Artxube, Basauritar, Batasuna, Bekosolo, Berantzagi, Berriztasuna, Beti Jai Alai, Bihotz Alai, Bihotz Gaztea, Danetarako Danok, Durundi Barri, Edurre, Egunsenti, Eguzki, Ekintza, Elai Alai, Enarak, Erreka Ortu, Etorki, Etorkizuna, Eusko Lorak, Gaztedi, Goi Alde, Goiherri, Gorantzaileak, Gure Herria, Gure Ohiturak, Hiru Bat, Ibai Arte, Ibai Lorak, Ibarakaldu, Iluntze, Intzarri, Iratxo Gorria, Irrintzi Alai, Irutasun, Itxartu, Itxas Alde, Itxas Argia, Kurutze, Lainomendi, Lorabarri, Mahastiako, Mamarigako, Mendi Alde, Mendi-Harana, Mendipe, Mikel Deuna, Mikeldi, Oin Arin, Salbatzaile, Salleko, Trabudu, Txikiak Txiki, Txoritxu Alai, Urdaibai, Uri Oste, Uztargi, Zasi Eskola, Zerutxu, Zugaitza. 





EUSKAL HERRIKO DANTZARI EGUNA 2020

- Egilea: Euskal Dantzarien Biltzarra. -

Aurten ezin dugu ospatu Euskal Herriko Dantzari Eguna (EHDE) ohi den bezala, egoera berezi honetan ezin ditugu bermatu segurtasun neurriak. Baina horrek ez du esan nahi ez dugula ospatuko.. EHDE 2020 ospatuko dugu!!

Este año no vamos a celebrar el Euskal Herriko Dantzari Eguna (EHDE) de la manera habitual ya que, dada la situación que vivimos, no podemos garantizar que se cumplan las medidas de seguridad. Pero esto no quiere decir que no lo vayamos a celebrar. ¡Vamos a celebrar el EHDE 2020!

Cette année, nous n'allons pas célébrer l'Euskal Herriko Dantzari Eguna (EHDE) de la manière habituelle car, étant donné la situation que nous vivons, nous ne pouvons garantir que les mesures de sécurité seront suivies. Mais cela ne signifie pas que nous n'allons pas célébrer. Célébrons l'EHDE 2020!





EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRETIK EGINDAKO DEIALDIA

Euskal Herriko Dantzari Eguna urriaren 3an ospatu zen.

Dantzak: talde bakoitzak bere herrialdeko dantza bat aukeratu zuen, ez zuen zertan ohikoa izan. Dantza autoktonoak zituzten taldeak euren dantzak dantzatzeraz animatzen genituzken.

Talde bakoitzak bere herrian dantzatuko zuen eta bideo bat sortuko zuen whatsappen bidez bidaltzeko, herria eta taldearen izena adieraziz.

Garraio, erromeria eta abarretarako aurreikusitako dirua parte hartzen zuten federatutako taldeei dieta bat emateko erabiliko zen.

2020ko urriaren 3an indarrean zeuden osasun-araudiak jarraitu ziren.

Aldez aurretik, Euskal Dantzarien Biltzarrak inskripzioak dantzagune@gmail.com helbidean egitea eskatzen zuen, irailaren 20a baino lehen hauek adierazita:

- Taldea izena
- Biztanleria
- Egin beharreko dantzak

DANTZA TALDEEN ERANTZUNA

Larunbatean, urriaren 3an, *Euskal Herriko Dantzari Eguna 2020* ospatu zen. Covid-19k sortu zuen egoerak markatu zuen ospakizun hori, gure bizitzako ia guztian bezala. Baina horrek ez zuen eragotzi gure euskal dantza tradizionalen taldeek egiten dakiten bezala, dantzan, adiskidetze eta euskal kulturaren aldarrikapen egun hau ospatu izana.

Denak ondo dakigunez, *Euskal Dantzarien Biltzarrak* antolatzen du kultur ekitaldi hau. Euskal Herriko eta diasporako euskal dantza taldeak biltzen ditu. 1965eko martxoaren 11n, *Euskal Dantzarien Biltzarra* izenarekin Ipar Euskal Herrian sortua (legeria frankistari ez zion uzten Hegoaldean legeztatzen) eta 1966ko maiatzaren 11n Biarritzeko Agilera estadioan egindako *Dantzari Eguna* izan zen lehen ekitaldi publikoa, eta bertan euskal herrialdeko txoko guztietako pertsonek parte hartu zuten.

Aurten 56 taldek hartu zuten parte. 46 Euskal Herrian eta 10 euskal diasporan. Honi esker, Bizkaiko mendebaldetik Xiberoraino eta Lapurditik Nafarroako Erriberaraino, gure herriak gure historiaren eta tradizioen erritmoan dantzatu zuten.

Baina egun hori, esan bezala, ez da soilik «etxean» ospatu. Munduan zehar sakabanatutako gure «etxeetan» ere dantza egin zen. “*Herritik Mundura*” lelopean, aurtengo edizioa dantza tradizionalaren defentsaren eta dantza-taldeen lan boluntarioaren testigantza izan da munduko edozein lekutan, eta lan etengabea eta iraunkorra izan da, sare sozial eta plataforma mota guztietan ikus zitezkeen jasotako bideoen euriteak konpentsatu edo islatu zuena.

Mila esker eta hurrengora arte!

OIER ARAOLAZAREKIN

HIZKETAN, DANTZA ETA
GENERO~IDENTITATEA
AZTERTZEN DITUEN
DOKTORE~TESIA
AURKEZTU
BERRITAN

- Egilea: Xabier Etxabe Zulaika. -



Oier Araolaza. Argazkia: Inigo Astiz.

Oier Araolaza Arrieta Elgoibarren jaio zen 1972an, baina txikitatik Eibarren bizi izan da. Dantza du pasio, kezka eta bizibide: Eibarko Kezka eta Donostiako Argiarekin aritzen da, eta Elgoibarko Haritzen ere dantzatu da. Dantzari ez ezik dantzaren ikertzaile, dibulgatzaile eta dantzarekin lotutako talde edo erakunde zenbaiten ordezkari ere bada; esaterako, Kulturaren Euskal Kontseiluan.

Bere ibilbidean funtsezkoa izan da Dantzan elkarteak, jokaleku horretatik aritu baita Oier Araolaza azken ia hoge urteotan.

Elkartearen tresna izan den web gunearen bitartez (lehen “dantzan.com”, orain “dantzan.eus”) hainbat eta hainbat gai plazaratu, gogoeta eragin eta ereduak ezagutzera emateko aukera eskaini da; gainera, dantzaren sektorean diharduten eragileei elkar ezagutzeko aukera eman die eta harreman sareak eraiki ahal izan dira. Ez da ahaztu behar, bestalde, bai Oierri eta bai beste dantzari batzuri ere profesionalki lan egiteko aukera eman diela elkarteak eta, horri eskerrak, hainbat proiektu eta jarduera burutu ahal izan direla.



Ezpata-dantzan Arraten (Eibar), 2019-09-08. Argazkia: Felipe Loiola - Kezka dantza taldea CC by-sa.

Mikel Laboa Katedrarekin (UPV/EHU) egin berri du doktore-tesia Oier Araolazak. Martxoaren 20rako iragarrita zegoen aurkezpena COVID-19ak atzeratu zuen apirilaren 30era; bideo-konferentziaz aurkeztu zuen doktore-tesia: “Genero identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntza”. Leire Ituarte eta Nerea Aresti izan zituen zuzendari; epaimahaiko kideak, oster, hauetxek: Melania Moscoso (CCHS), Xabier Itzaina (Sciences Po Bordeaux) eta Miren Llona (UPV/EHU). Tesia aitzakia hartuta elkartu gara berarekin, gai horietaz ez ezik, oro har euskal dantzaren egoeraz eta etorkizunaz hitz egiteko.

“Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntza”. Hitz bakoitzak badu esanahia. Alde batetik, “euskal dantza tradizionala”; bestetik, tradizionala izanagatik, “eraikuntza” bat dena. Eta, gainera, “genero-identitatea” rekin zerikusia duen eraikuntza. Nonbaitetik, hasteko, Oier, zer dela-eta hiru elementu horiek uztartzen dituen tesia egiteko interesa?

Azken orduan aldaketa txiki baina esanguratsua egin genuen tesiaren izenburuan. Lana egin bitartean jarrita neukan izenburua haxe zen: “Genero-identitatearen eraikuntza euskal dantza tradizionalan”. Baina Leire Ituarte eta Nerea Aresti zuzendarekin hizketan ohartu ginen nire lanak ez zuela “genero-identitatearen eraikuntza” aztertzen, baizik eta nola agertu, baliatu, erabili eta proiektatu zen genero-identitatea euskal dantzan zehazki euskal dantza tradizionala bera eraiki zen aroan. Izan ere, euskal dantza tradizionala, edo gutxienez horren formulazio ezagunena, “eraiki” egin zen XX. mendearen lehen herenean. Xabier Alberdik eta zeuk Zarauzko folkloreak egindako ikerketan ere azaleratu zenuten Hobsbawmek ongi seinatu zuen XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako tradizio berrien sorkuntza aro hori: Zarautz Berria deitzen diozuen horretan, Festa Berriak, Euskal Festak eta horien ondotik dantza taldeen eredu berria, alegia, tradizio berria sortu ziren.

Hortaz, dantzaren “eraikuntza” kokatu dugu; eta, kokatu ere, aldaketa sozial, politiko eta



Ezpata-dantza Donostian, Goizaldi dantza taldearen 50. Urteurrenean, 1998-06-14. Parez pare ageri den lerroan, ezkerretik hasita: Jon Lizarralde, Abel Iriondo, Aitor Viñaras, Oier Araolaza eta Igor Lizarralde. Argazkia: Marta Ventura - Haritz Euskal Dantzari Taldea.



Argia eta Haritz dantzari taldeetako dantzari eta txistulariak 1990eko hamarkada bukaeran. Goiko lerroan ezkerretik hasita: Unai Froilan, Aitor Viñaras, Igor Odriozola, Jexux Larrea, Juan Antonio Urbeltz, Iñaki Arregi, Iñaki Elosua, Fernando Aristizabal eta Abel Iriondo. Behean: Asier Gorriti, Juan Karlos Larreategi, Jose Inazio Sarasua, Mikel Cornejo eta Iñaki Goñi. Argazkia: Haritz Euskal Dantzari Taldea.

erlijioso nabarmenak eman ziren garaian. Zer diozu “euskal dantza tradizionala” eta “genero-identitatea” kontzeptuez?

Nire pasioa Euskal Dantza da. Luzaroan “tradizionala” bigarren abizena gehitu diot “euskal dantza”ri, baina orain gero eta gehiago abizen bakarrekin, “euskal”ekin bakarrik izendatzea gustatzen zait. Aspaldi ari naiz defendatzen berbazko komunikazioan gure hizkuntza euskara den moduan, berbarik gabeko komunikazioan, gure gorputz hizkuntza euskal dantza dela. Generoa zeharkako ardatza da. Dantzan egindako ibilbideari atzera begiratzuz gero kontraesanez beteta ageri zait. Badirudi burbuila batean sartuta izan garela euskal dantzan, gizarteko beste alor batzuetan defendatu ditugun berdintasun irizpideak ez baititugu aplikatu dantzan. Gogoan dut 1998. urtean, Goizaldi dantza taldearen 50. urteurrena zela eta ehun dantzarik osatutako ezpata-dantzan parte hartu genuela. Ehun gizonetako ginen. Ekitaldiaren bukaeran, ezpata-dantzarien kapitain aritu zenak Irungo alardean emakumeen parte hartzea babestera animatu

gintuen. Aldameneko espaloian emakumeen parte hartzea defendatzen genuen bitartean gure espaloian emakumerik gabeko tradizioak bultzatzen jarraitzeko gai izan gara. Inkoherentzian bizitzeko giza gaitasunak ez dauka mugarik.

Gure dantza-ibilbideetan, batik bat dantza taldeetan egina, hainbat aldaketa bizi izan ditugu, eta geronek probokatu ere bai batzuk; eta beti tradizioaren baitan aritu garen sentsazioarekin, hortik ihes egiteko asmorik gabe. Aldaketa horiek modu egokian gauzatzeko erreferenteak behar izaten dira, eta nik uste falta izan zaizkigula askotan. Zuk non aurkitu dituzu?

Nik zorte handia izan dut. Gure taldearen, Kezka dantza taldearen ardura oso gazterik hartzea egokitu zitzaigun Aresatz Usobiagari eta bioi. Gero ohartu naiz oso ohikoa dela hori dantza taldeetan. Gure aurrekoek irakatsi zigutenarekin konforme geunden, ez genuen uste askoz gehiago geneukanik

ikasteko. Asko jota dantza ezezagunen bat. Eta horixe, ezagutzen ez genuen dantza berri bat ikasteko asmoz, aldameneko herriko dantza taldera hurbildu ginen, dantza hori ikasita dena eginda genuelakoan. Hogeita hamar urte pasata oraindik bizi-bizi ditut Elgoibarko Haritz dantzari taldearen entsegu gelan sartu ginen egun hartako irudiak. Dantzarako gela handi eta egoki bat, lur, ispilu, barrarekin, eta irakasle bat, Lourdes Odriozola, serio demonio beroketak eta klasea ematen. Gela erraldoi hura betetzen hirurogei dantzari, janzkera uniformatuta entsegarako eta diziiplina harrigarri klasea jarraitzen. Eta halako batean gizon bat, serioa baina adeitsua, dotore jantzita, enpresa handi bateko zuzendari tankeran hitz egiten zuena hurbildu zitzaigun, dantzarako txapin berriak eman eta txistua eta danbolina hartuta dantzari guztiak gorputz bakarra moduan dantzan jarri zituen: Jose Inazio Sarasua. Gure anfora egun hartan hautsi zen. Mundu berri bat ireki zen gure aurrean. Dantza bat ikasteko asmoz entsegu batera joan ginen eta urtebete laurogei entsegu egin genituen. Eta berehala, Sarasuaren eskutik Juan Antonio Urbeltz, Marian Arregi, Iñaki Arregi, Fernando Aristizabal, Jexux Larrea eta oro har Argia dantzari taldea ezagutzeko aukera izan genuen. Mundu berri bat ireki zitzaigun. Sarasuak prentsako errekorreak ekartzen zizkigun, eraman gintuen maskaradetara, batera eta bestera dantza ekitaldiak ikustera, Iruñera ttun-ttuneroen nazioarteko jardunaldietara,... Musikaren eta dantzaren alorreko hainbat erreferente ezagutzen zituen eta oso gertuko harremana zuen denekin, beraz, haren eskutik joan nintzen ni ere hainbat ezagutzen. Berari esker sartu nintzen dantzaren munduan burubelarri. Hiru urte dira Jose Inazio hil zela. Ez dakit zauri hau inoiz orbanduko den.

Zorte handia izan dut beraz, ezustean bidera agertu baitzaizkit nire bidea markatu duten erreferenteak. Adibidez, 1998-1999an, antropologia ikasten ari nintzela EHU, euskarazko taldean hainbat ikasgai irakasle berberak, Mari Luz Estebanek ematea egokitu zitzaigun. Bera lanez gainezka zegoen, hainbat



ikasgai aldi berean prestatu beharra zuen eta ahalegin handia egin behar izan zuen, baina guk izugarrizko aukera izan genuen, irakasle bikaina izateaz gain feminismoaren betaurrekoak oparitu baitzizkigun. Une horretan nire baitan nituen kontraesanak lehertu ziren eta errefuxa erreakzioa izan nuen. Ni ez nintzen konturatu, baina arroka gogorrenakin bezala, zailena, lehen pitzadura, egina zegoen. Denbora bakarrik behar zen arrakalatik ura sartzen hasi eta halako batean etena eragiteko.



Ezpata-dantzariak Arraten (Eibar), 2019-09-08an. Ezkerretik hasita: Josu Garate, Oihane Llorente, Enrike Izagirre, Itziar Otamendi, Monika Bañales, Eider Agirrebeña, Onintze Azpeitia, Jaione Olasagasti, Luken Aranburu, Ainhoa Larrañaga eta Oier Araolaza. Argazkia: Felipe Loiola - Kezka dantza taldea CC by-sa.

Eta erreferenteak bidera nola atera zaizkidan ikusteko, hirugarren bat. Gogoratzen dituzu Zarauzko Yubio tabernan Fernando Rojo, zeuk eta hirurok egindako ostiraletako bazkari-tertulia haiek, ezta? Tolosar bat, zarauztar bat eta eibartar bat, hiru dantzari, dantza-talde tradizio desberdinetakoak baina dantza-mundua ikusteko frekuentzia bera sintonizatzen genuenak, dantzaren mundua konpontzen. Gure tertulietan ez dut uste generoaz asko hitz egin genuenik,

baina 1999an idatzi zuen Fernando Rojok “*Emakumea euskal dantza tradizionalen*” artikulua mugarria izan da, aro berri bat ireki zuen euskal dantza eta generoa ikusteko moduan. Beraz, zorte itzela nirea berriz ere!

Gutako askoren ibilbidean gertatu den prozesua aipatu duzu, Oier: dantzak eta dantza-pausoak ikasten hasi, eta noiz edo noiz konturatu inportanteena dantza eta haren unibertso osoa ezagutzea zela.



Arrate (Eibar), 2012-09-08. Ezkerretik hasita Oier Araolaza, Soiartze Artetxe, Fernando Rojo eta Xabier Etxabe. Argazkia: Felipe Loiola - Kezka dantza taldea CC by-sa.

Emilio Xabier Dueñas-ek orain gutxi oso ondo laburtu du, *Dantza, festa eta kultur ondarea* izeneko Jardunaldietan: “Dantzaren testuingurua interesatzen zaigu”. Zuk aipatzen duzun garaitsu horretan izan ginen gu biok EDBk antolatutako folklore-ikastaro batean. Ikastaro haren bukaeran norbere herrian ikerketa bat martxan jartzea proposatu zuten, eta niretzat hura abiapuntua izan zen herriko dantzari eta danbolintero zaharrei elkarrizketak egiten hasteko, eta artxiboetan begiratzen hasteko ere bai. Badakizu zer den harrigarriena? Urteen poderioz konturatu nintzela erreferente nagusiena etxean bertan nuela: gure aitona trikitilaria, Jexux Zulaika “Beote”, eta haren erromerietako soinuaren unibertsoak bat egiten zuela nirearekin. Batzuetan erreferenteak begien bistan dauzkagu, baina kosta egiten zaigu ezagutzea begiratu beste leku batean dugulako. Ez al zaizu iruditzen?

Bai, ados nago dantzaren testuingurua interesatzen zaigu, baina ez bakarrik hori. Dantzaren hizkuntzarekin berarekin ere, alegia, formarekin, interes handia daukagu. Agian aurreko belaunaldiarekin konparatuta semantikarekin, sinbologiarekin ez dirudi jakinmin bera dugunik, baina testuinguru kulturean dantzak jokatzeko duten funtzioekin badugu interesa, eta hori izan daiteke semantikara hurbiltzeko gure modua.

Hizkuntzaren formari, morfologiari dagokionez, uste dut horrekiko interesa badagoela gaur egun ere. Hor daude azken urteotan Jon Iruretagoienak Zuberoako sistema koreologikoaren edo Mikel Sarriegik Gipuzkoako dantza sistemaren deskribapen eta horren bilakaera historikoaren ezagutza egindako aurrerapausoak. Ikerfolkeko lantaldeak Juan Antonio Urbeltzen gidaritzapean 1990eko hamarkadan ezarritako oinarrietan sakontzen dihardute, bai belaunaldi horrek, bai ondotik etorritakoek ere, eta frogatzen ari dira hazka egiten jakinez gero, beti agertzen direla ahozko zein idatzizko iturri berriak. Eta hain



Aurrekua Argiñetan (Elorrio), 1964. urtean. Mari Atxero da dantzan ageri den emakumea. Jose Garaizabalek utzitako argazkia.

zuzen, bai aurreko belaunaldiak, bai oraingoak, etxe-bueltako, gertuko erreferenteak balioan jartzen dizkigu.

Zuk, Xabier, *Lurtarra da begiratu*a liburu ederrean jorratu zenuen aitona Jexux Zulaika "Beote"ren erromeriaren unibertsoa, Zarauzko folklorearen inguruan Xabier Alberdirekin batera egin zenuten ikerketa lan sistematikoaren osagarri literario bikaina da. Datu eta testigantza bilketa ordenatuaren ondoan, era horretako lanetan transmititzea zailagoak gertatzen diren usainak, soinuak, giroak, eszenak bizi-bizi, koloretako ilustrazioak bailiran margotu zenizkigun aitona trikitilariaren erromeria-munduaren narrazio horiekin. Ezin irudikatu bestela Patxi Beitia dantza-maisu eibartarra "sasiko" aurrekua dantzatzen edo zuen birramama Beoteko Bitxori soltean, Artzayari dantza-desafioa jokatzeko orain ia ehun urte. Erreferente horien gorputz hizkuntza, dantza-lengoaia interesatzen zaigu, gehiegitan handimandi superioritate konplexuz gutxietsi ditugun, eta oraindik hainbat dantza-testuingurutan

baztertuak diren dantza-molde zapoetsu horiek balioan jarri behar ditugu. Horien morfologia, testuingurua eta semantika, dena zaigu gozagarri. Eskolan ikasitakoa hobe delakoan aitona-amoniei euskara zuzentzen aritu gara euskal dantzan luzaroan eta badugu garaia egindako akats larriaz ohartu eta eskolan ikasi duguna, uniformeegia eta grisa nahiko genukeen bezain adierazkorra izateko, aitona-amonen ahoskera eta josterekin ziprztindu eta koloreztatzeko.

Oier, nik ere somatzen dut badabilela jendea bilaketa horretan. Ez dakit, ordea, hortik kanpora ez ote dabiltzan gehientsuenak. Folklorearen ikuspegi zabal horren lanketan hainbat pauso eman dira. Euskal Herrian barrena, *Neguko festak* izenarekin azken urteetan ematen ari zaren hitzaldiek badute folklorea edo tradizioa osotasunean ikusteko bokazioa: hasi kalabazen tradizioetik, segi Olentzerorekin, eta Iñauteriak bitarte ospatzen diren erritu, eskeko festa eta mozorroak. Zuberoko Maskaraden

eredua ere sarri goraipatzen da orain, edo Libertimendua, festa-egutegian ondo finkatutako ereduak izateaz aparte, integratu egiten dituztelako hainbat kultur adierazpen: dantza, musika, antzerkia, bertsoak... Nik esango nuke jendeak euskaldunen eta euskararen elkargune sentitzen dituen leku eta taldeetan maizago ematen dela orain fenomeno hori; gure inguruan ere hala zen 1960 eta 1970 hamarkadetan, baina asko galdu dugu bide horretan. Galdetu nahi nizuke, Oier, hitzaldietan eta dantza taldeetako jendearekin izan duzun harremanetan oinarrituz, ea zuk zer joera nabaritzen duzun bi gai horien inguruan (dantzaren hizkuntza eta dantzaren testuingurua), eta baita joera horiek zer nolako babesa izan dezaketen erakunde nahiz komunikabideen aldetik; kontuan hartuz dantzaren inguruan beste proposamen franko badela gaur egun.

Euskal dantzaren ezagutza oso azalekoa daukagu oro har, eta horixe da nik sumatzen dudana arrisku larriena. Euskal dantza, gure gorputz-euskara, dantza taldeetan eta dantza-eskola batzuetan egiten den lanari esker transmititzen da. Horrela gazte batzuk ozta-ozta euskaraz dantzatzeko ikasten dute, baina hizkuntzaren oinarritzko ezagutza hori oso motz geratzen da sorkuntzan eta hizkuntzaren beraren berritze eta eguneratzean aritu ahal izateko. Hiztegi murriztua, sintaxiaren arrastorik ez, fonetika desitxuratua, eta euskal dantzaren tradizio estetiko eta metaforen ezezagutza nagusi da euskal dantzaren alorrean. Balleteko hiper-entsio, zuzentasun eta zurruntasun estetizista teknika onarekin nahasten da, baina aldez, ez da baloratzen -ez baita ezagutzen- estilo hanpaturik gabe azentuekin eta apaingura erritmikoekin jolastuz tradizioz hain oparoa gertatu den sortze-bidea. Sektore batzuetan, txapelketa eta ikuskizunetan adibidez, dantza klasikoaren kanona erabiltzen da euskal dantzaren kalitatea neurtzeko eta horrek esan nahi du koreologikoki guztiz kolonizatuta gaudela, gure gorputz-hizkuntzaren teknika eta estetika guztiz desitxuratuta.

Euskal dantzan lehenetsi den ikasketak maila, dantza taldeetako monitore edo begirale agiriekin aitortu dena, oso apala da, ez da dantza ikasketarik eskaini eta ez da euskal dantzaren ezagutza sakontzea sustatu. Jaurilaritzak goi mailako dantza ikasketak eskaintzeko eskola bat ireki du Bilbon [Dantzerti], ez dago euskal dantza ikasketen eskaintzarik bertan, eta ahots batzuk altxatu ditugun arren, oro har sektorea ixilik geratu da, gurekin zerikusia ez balu moduan kontu honek.

Eztabaidatu genezakeen euskal dantza ikasketak majisteritza, filologia, heziketa fisikoa edo goi mailako dantza eta musika ikasketen eredura bultzatu behar genituen, baina gora begiratu beharrean, behera begiratu da, aisialdiko begiraleen eredua nahikoa dela defendatu du EDBk eta hori aplikatzerakoan ez da iritsi horren hamarren ere. Eta hori ere alperrik, ze bitartean Musika eta Dantza Eskoletan euskal dantza irakasteko habilitazioak oparitu ditu Eusko Jaurilaritzak EDBren konplizitatearekin. Gure buruari harakiria egin diogu, ikasketarik eskaini ez, aldarrikatu ere ez eta gainera euskal dantza irakasteko habilitazio ofizialen oparitzea baimendu da.

*Uste dut gizarte moduan
erronka handia dugula
aurretik genero ikuspegi
dagokienez. Genero-
identitateak eta horiei lotutako
rol estereotipatuak oso indartsu
ageri zaizkigu gizartean,
eta niretzat kezagarriena
da ikustea horiek lausotu
beharrean eremu batzuetan
sendotzen ari direla.*

Buka dezagun elkarrizketa hau hasi dugun lekuan, Oier: dantzaren eta generoaren arteko erlazioan. Elkarrizketa batzuetan aipatu duzu gaur bizi dugun kontraesana:

gizonezkoak oraindik ere protagonista dira, baina haietako gutxi dabil dantzan; batez ere, dantza gero eta markatuagoa dagoelako nesken aktibitate moduan. Gainera, oraindik hondoa ez dugula jo esan izan duzu, eta ni konforme nago horrekin. Begiratu besterik ez dago, esaterako, abesbatzei; edo beste dantza diziplina batzuei: ni Oporton izan nintzenean, Pirmin Treku zenaren akademian, orain hogeit urte, bertan ehun neska zebiltzan dantzan, eta mutil bakarra. Eta, galdera da, zer egin? Etsi egin behar ote dugu, eta pentsatu neskez osatutako taldeak izango direla etorkizunean, mutilak ez direlako eroso sentitzen? Instituzioetan jarri behar ote dugu indarra, jakinda orain arte inor gutxik hartu duela serio errealitate hau?

Uste dut gizarte moduan erronka handia dugula aurretik genero ikuspegiei dagokienez. Genero-identitateak eta horiei lotutako rol estereotipatuak oso indartsu ageri zaizkigu gizartean, eta niretzat kezagarriena da ikustea horiek lausotu beharrean eremu batzuetan sendotzen ari direla. Adibidez, haurtzaroan ikusten dugu genero-identitateen adierazpena oso goiztiarra dela eta praktikak erabat baldintzatzen dituela. Iruditzen zait orain hogeita hamar urte baino zailagoa dela gaur egun hamar urteko mutil batentzat dantza egitea eta dantza gustatzen zaiola sozialki erakustea. Kokoteraino nago umeari dantza egitea gustatzen ez bazaio ezin dela behartu entzuteaz. Eta nola dakite ez zaiola gustatzen? Hiru-lau urte bete arte ume guzti-guztiei gustatzen zaie dantza egitea. Hortik aurrera, jarduerak generoaren arabera sailkatuta daudela ikasten dute eta dantza nesken kontua dela. Beraz, mutil rola asigantuta duela ohartu orduko, mutil gehienek dantza erazuten dute beren bizitzatik. Ikaragarria da. Milaka urtetan euskal, eta munduko kultura guztietan, dantza oinarritzko jarduera izan da, komunikatzeko, sozializatze, gozamenerako, lehiarako, sortzeko, adierazteko, osasuntsu izateko funtsezko praktika. Eta orain gizartearen erdiak uko egin dio gure kulturaren zutabe horri. Honen ondorioak trajikoak dira, gure kulturarentzat desastre bat da. Dantzarik ez

Los dantzaris, con sus trajes de etiqueta —frac y sombrero de copa— daban al baile, en aquel marco popular, toda la ceremonia y toda la nobleza.

Los presidentes de las cuatro Diputaciones fueron de acuerdo siempre con el ceremonial, los encargados de invitar a las damas y señoritas que habían de complementar la danza. Los primeros honores correspondieron a la señora de don Julián Elorza, ante la que el señor Ormaza bailó con su estilo vizcaíno. Después fue invitada la señorita de Monzón, ante la que, a su vez, bailó ceremoniosa y gentilmente el señor Baleztena.

Seguidamente formaron en la cadena de dantzaris, enlazadas por medio de pañuelos, la esposa del concejal bergaratarrá señor Gallastegui, las de los señores Zabaleta, Berroya, Otazua, Mendibil, Ubillos, Peña y Zabaleta, y las señoritas Arteche, Urmeneta, Monzón, Azcona, Berroya, Olan, Echeberría, Galfarsoro, Herreros de Tejada, Murga, Movilla, Muxika y acaso otras cuyos nombres fue imposible consignar.

El infante don Fernando, acompañado de los gobernadores civil y militar, siguió con atención la danza desde uno de los balcones de la Casa Consistorial.

*Al final del auresku, las señoras y señoritas que en él tomaron parte, fueron obsequiadas con un lunch en el Ayuntamiento.*⁸⁵

El atzesku Baleztena, no es otro que el mismo que participó en dicho cometido en el anterior Congreso. El papel de “servidores” corrió a cargo de los cuatro presidentes de las diputaciones: F. Abreu (Álava); R. de Añibarro (Guipúzcoa); marqués de Villafranca del Castillo (Vizcaya); y el Sr. Sanz (Navarra).

A estos, sumaremos los integrantes masculinos:

*“... el alcalde de Pamplona señor Arvizu, el de Vitoria señor Guinea, el de Bilbao señor Careaga, los diputados vizcaínos señores Urrutia, Zubiria [...] el de Guipúzcoa señor Elorza y el secretario señor Zubeldia, los diputados alaveses [...] y Aldama.”*⁸⁶

Una de las excursiones se realizó al santuario de La Antigua (Zumarraga) donde tuvo lugar un Auresku, realizado por el alcalde de dicha villa: “En uno de los altos que se hicieron en la excursión, bailaron el auresku y el atzesku los señores Linazasoro y Uribesalgo, acompañádoles las señoritas de Laskibar y Barrenetxea.”⁸⁷

Y, como si de un gran salto temporal se tratase, llegamos a 2018, a Oñati y 88 años

85. A pesar de la extensión de la cita, se ha creído oportuno incluirla en su totalidad por la importante información ofrecida: M. A. “Crónica del V Congreso de Estudios Vascos”, p. XXIX. Ver, asimismo: M. A. “El V Congreso de Estudios Vascos en Vergara”. En: El día, 2 de septiembre de 1930; M. A. “En Vergara. Brillante inauguración del V Congreso de Estudios Vascos”; “Solemne inauguración del V Congreso de Estudios Vascos”. En: La Voz de Guipúzcoa, 2 de septiembre de 1930, p. 7. Como puede observarse, al igual que sucede en otros años y congresos, el apellido aportado en las noticias, a menos que se indique específicamente el propio de cada una de las señoras, es el correspondiente al primero de sus respectivos esposos. Ver, asimismo: “Bajo la presidencia del Infante don Fernando, se inauguró el domingo en Vergara el Congreso de Estudios Vascos”. En: El Pueblo Vasco. Bilbao, 2 de septiembre de 1930; p. 6; “El domingo se inauguró el Congreso de Vergara”. En: La constancia, 2 de agosto de 1930, p. 5.

86. M. A. “El V Congreso de Estudios Vascos en Vergara”.

87. “En el V Congreso de Estudios Vascos de Bergara”. En: Euzkadi. 1930-Iralla-5, p. 2.

después; casi nada. El 24 de noviembre a las 11:15 h. con el protocolo marcado por la institución principal, el Gobierno Vasco, inmediatamente después de la firma en el libro del centenario de El-SEV y bajo la organización de Oñatz Dantza Taldea, se procedió al inicio de los actos⁸⁸ con el bautizado *Men-deurreneko Aurrekua* o *Soka Dantza*.

Para que los integrantes de la “cuerda” procedentes de instituciones locales (Ayuntamientos), El-SEV y grupo de danzas local (Oñatz), tuvieran una participación homogénea, se creó una coreografía sencilla, tomando como base el *Aurreku* del *Corpus Christi oñatiarra*⁸⁹.

La estructura, especial para la ocasión, fue la siguiente: *Kontrapasa* (melodía de Desafío); *Desafío*; *Aurrekuaren eta atzeskuaren aurrekua* (melodía de *Andreen deieko soñua*); *Azken desafioa* (melodía de *Desafío*); y *Zubia* (melodía *Zortzikoa*).

Los músicos, integrantes de Aita Madina Txistulari Taldea, fueron: L. Díaz de Gereñu (*txistu* y tamboril); J. R. Barrena (*txistu* y tamboril); A. Madina (*txistu* y tamboril); A. Madina (*silbote*); y J. Muñoz (*atabal*).

88. Artículo crítico sobre el Aurreku en: ARAOLAZA, O. “Soka ez da eten, baina agintari gorenak sokatik kanpo kokatu dira”. En: <https://dantzan.eus/kidea/oier/sokaez-da-eten>. Información relativa a los actos del día en: “Soka-dantza dantzatuko dute agintariak, orain dela ehun urte bezalaxe”. En: Kontzejupetik. 288 zbka. Oñati: Oñatiko Udala, 2018ko azarora, p. 5; Deia, “Eusko Ikaskuntza cierra su centenario con la mirada en los retos de futuro. Un siglo de vida”. En: <https://www.deia.eus/2018/11/25/sociedad/euskadi/eusko-ikaskuntza-cierra-su-centenario-con-la-mirada-en-los-retos-del-futuro.html>; IBARGUTXI, F. Diario Vasco. “Eusko Ikaskuntza cierra su congreso con el compromiso de redactar el Libro Blanco”. En: <https://www.diariovasco.com/culturas/eusko-ikaskuntza-cierra-20181123172153-nt.html> 23 noviembre 2018; eldiarionorte.es. “Eusko Ikaskuntza cumple 100 años”. En: https://www.eldiario.es/norte/euskadi/Eusko-Ikaskuntza-cumple-anos_0_839216399.html; El Mundo-EFE. “Eusko Ikaskuntza celebra 100 años arropada por las instituciones”. En: <https://www.elmundo.es/pais-vasco/2018/11/24/5bf96e51ca4741ce398b45c7.html>.

89. Incurriendo, de forma consciente, en una menor ritualización, duración y peso socializador.

Conformación completa de la “cuerda” por orden en la misma: X. Alkorta (presidente del XVIII Congreso de El-SEV o del Centenario); *aurrekularia*: M. Biain (integrante de Oñatz Dantza Taldea de Oñati⁹⁰); *gonbidatuen bila*: A. Bengoa (integrante de O. D. T.); I. Beraza (alcalde de Salvatierra-Agurain); L. Altuna (alcaldesa de Aramaio); A. Barandiaran (vicepresidente por Nafarroa de El-SEV); M. Urrutia (integrante de O. D. T.); M^a E. Lete (alcaldesa de Bergara); O. Peón (alcaldesa de Tolosa); R. M. Pagola (vicepresidenta por Bizkaia de El-SEV); E. Mendi (integrante de O. D. T.); A. Tatiegí (integrante de O. D. T.); J. M^a Gorroño (alcalde de Gernika-Lumo); P. Elosegi (presidente de Arabako Batzar Nagusiak-Juntas Generales de Álava); I. Dorronsoro (presidente de El-SEV); O. Inza (integrante de O. D. T.); N. Bikuña (integrante de O. D. T.); I. Landa (alcalde de Getxo y presidente de EUDEL); A. Agirrebeitia (alcalde de Amorebieta-Etxano); M. Biain (alcalde de Oñati); I. Murgiondo (integrante de O. D. T.); P. Ugarte (integrante de O. D. T.); A. J. Iriarte (alcaldesa de Urreñak Bajo); R. Maiza (alcalde de Berriozar); A. Uriarte (integrante de O. D. T.); I. Osa (integrante de O. D. T.); L. Intxauspe (alcalde de Hernani); Z. Etxezarraga (alcaldesa de Astigarraga); J. M^a Arrazola (vicepresidente por Gipuzkoa de El-SEV); A. Usandizaga (integrante de O. D. T.); J. Irizar (presidente y maestro de danza de O. D. T.); Á. Eguía (alcaldesa de Gordexola); N. Iribar (alcaldesa de Zarautz); A. Iztueta (vicepresidenta por Araba de El-SEV); A. Arrizabalaga (integrante de O. D. T.); M. Irigoien (integrante de O. D. T.); E. Urteaga (presidente de El-SEV de Iparralde); *gonbidatuen bila*: A. Agirre (integrante de O. D. T.); *atzeskuaria*: G. Madinabeitia (integrante de Oñatz Dantza Taldea).

Personas invitadas a la “cuerda” como parejas de *aurrekulari* y *atzeskuari*, respectivamente: M^a L. Azurmendi (socia de mayor edad de El-SEV) y Á. Castillo (socio más joven de El-SEV).

90. En adelante O. D. T.

4. EL BREVÍSIMO EPÍLOGO

Analizar en unos pocos párrafos la contextualización histórica de cada acto, basándonos en la operativa de trabajo de El-SEV o las decisiones tomadas en la realización de actividades, principalmente CEV, se hace harto difícil, por lo que aquí añadiremos únicamente unas apreciaciones finales, siempre atendiendo a la existencia de varias épocas separadas en el tiempo. Una primera, entre 1918 y 1936. Una segunda, deslavazada en dos Congresos (1948 y 1954). Y una tercera que continúa en la actualidad.

La fundación de la Sociedad en base a la realización previa de un Congreso fue el resultado de una toma de contacto con el medio. Años de una primera época que supusieron un momento álgido en la celebración de acontecimientos culturales que buscaban el impulso a nivel académico de materias y disciplinas en auge a nivel europeo. Este aspecto, ligado a lo meramente cultural-científico, no estuvo exento de cambios en las esferas políticas y administrativas que, sin duda, provocaron más de un sobresalto en las actividades. Podríamos llamarlo una regularidad desequilibrada de sucesos varios que se mostraba, por un lado, con lo popular, manifestado en la calle. Por otro, con lo “elitista”, expresado en las aulas, exposiciones o conciertos.

Apartados unidos y, al mismo tiempo, desconectados que quizá en un intento de contentar a todas las capas sociales, se quedaban a medio camino. Es un evidente indicador de la labor esforzada, a nivel humano y económico. Los frutos, que han sido muchos y de peso están ahí, al alcance de cualquier interesado.

En lo que se refiere a lo teórico-práctico, el apartado preponderante de formación y divulgación que ha mantenido a lo largo de la historia El-SEV, solo es equiparable con la aportación de diversas personalidades que han trabajado en pos de la consecución de los fines para lo que fue creada. Sin olvidarnos, por supuesto, del factor de investigación llevado a cabo, a nivel personal, por los estudiosos, expertos y académicos integrantes de las Secciones, Comisiones, etc.

La danza y las representaciones callejeras o en un escenario, han tenido cabida en las celebraciones y su contextualización se hace necesaria para entender cada situación. Mientras las exhibiciones de formaciones específicas de danza, de diferentes edades, buscaban la demostración, posiblemente gimnástica y de fundamento identitario local, para deleite de un público que, generalmente, desconocía tales coreografías, la faceta protocolaria de los “Aurrekus de honor” intentaba mostrar una cara, la amable de los representantes institucionales. ¿Situación forzada por una, posible, decadencia de lo que durante siglos se había convertido en la “danza nacional” de una parte del país?

Nos queda por incluir en este conjunto o mezcla de sabores, los actos programados dirigidos a la participación directa y activa del pueblo, los congresistas y las autoridades, mediante romerías y bailes. Cuestión esta, nada baladí ya que, no siempre de una forma consensuada, cuando faltaba este tipo de acto, la queja popular se materializaba en la calle y en la prensa.

Sin duda alguna, los retazos periodísticos presentados en este artículo, a veces con poco detalle, nos pueden dar una lectura contradictoria de la función social y cultural de El-SEV, respecto de los actos dirigidos al gran público. La imagen es de una complementariedad relativa o difuminada entre el apartado divulgador = teórico y el divulgador-participante = práctico. Incluso se podría tildar de secundaria la segunda faceta; todo ello dependiendo, por supuesto, del documento consultado.

La aportación en uno u otro sentido está ahí. Son 100 años con un gran intermedio y con muchos cambios a lo largo de este sinuoso recorrido, que nos apartan de aquella primera época donde, la danza y el baile eran realizados por las clases más populares y por las que no lo eran tanto. No estaría mal, hacer ver a la clase política de hoy en día que su participación, a veces, debiera ser directa y no meramente de comparación. Defender postulados como elemento estético no es (únicamente) el fin, si no el medio. 

JON BAGÜÉS:

ERESBILI ETA MUSIKARI LOTUTAKO BIZITZA

- Egilea: Xabier Etxabe Zulaika (Erreterian egindako elkarrizketa 2020ko abuztuaren 13an). -




Jon Bagüés Erriondo (Erreteria, 1955) erretiroa hartu berria da, baina ez du horregatik galdu musikarako duen pasioa.

Erreterian hasitako bideak, Andra Mari koralean eta Ereintza txistulari taldean, segida izan zuen Donostiako, Madrilgo eta Bartzelonako Kontserbatorioetan egindako musika-ikasketekin; gainera, Filosofia eta Letrak ikasi zituen Donostian eta Bartzelonan, eta Musikaren Historian espezializatu ondoren, artxibistikan eta dokumentazioan espezializatu zen Madrilen 1982-1983 ikasturtean. 1985ean “Capilla Peñaflorida” sortu zuen, antzinako musika ikertzeko eta zabaltzeko helburua zuen

elkartea. 1990. urtean doktore-tesia aurkeztu zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, izen honekin: “La Música en la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País”. Bere ikerketaren fruituak ugariak dira: liburuak, artikulak, partiturak, disken zuzendaritza... Hainbat elkartetan parte hartu du, besteak beste: Euskalerriaren Adiskideen Elkarte (RSBAP), Eusko Ikaskuntza, Sociedad Española de Musicología, Asociación Española de Documentación Musical, IAML, eta Donostiako Orfeoia.

Jose Luis Ansorena Miranda zenaren ondoan, Eresbil izan du ofizio eta afizio urte askoan,



José Uruñelaren fondoan gordetako partiturak
“A5/1 C-10”: Danza de Santa Lucia: de Ziordia. “A5/1 C-11”: Antzarra jokua: juego de gansos de Betelu

lehendabizi artxibozain moduan (1986-2000) eta ondoren bertako zuzendari izanik (2000-2020).

Erretiroak ematen duen distantzia aprobeztatu nahi izan dugu guk Jon Bagüesekin gai horietaz eta beste hainbatetaz ere patxadaz hitz egiteko.

Jon, kontaiguzu nola izan zen Eresbilen sorrera.

1974an sortzen da Eresbil Erreterian, Andra Mari koralaren inguruan, urtebete lehenago sortutako ideia batetik. Jose Luis Ansorena Miranda zen garai hartan koralaren zuzendaria, eta 1973an euskal musikagileen obrekin aste bat antolatzea pentsatu zuen: “Musikaste” deitu zion. Ideiak arrakasta izan zuen, eta lan horretan oinarrituta, urtero egitea erabaki zen. Baina konturatu ziren ez zegoela liburutegi musikal berezirik euskal musikagileen obrak bilatzeko, eta behar horrek ekarri zuen artxibo bat osatzeko asmoa. Modu horretan sortu zen Eresbil, alegia, “Euskal Ereslarien Bilduma”; gazteleraz, “Archivo de Compositores Vascos”. Izenak esaten duen moduan, euskal musikagileen lanak besterik ez ziren jasotzen hasieran. Berehala, euskal musikagileen partiturekin batera liburuak eta aldizkariak biltzen hasi ziren. Pixkanaka, hasierako ideia aldatzen joan zen, Euskal Herrian musikarekin lotutako dokumentuak bilduz, edozein formatutan –paperean nahiz ikusentzun formatuan–.

Zer laguntza izan zuen Jose Luis Ansorenak?

Esan dizudan moduan, Andra Mari koralaren baitan hasi zen lanean Jose Luis Ansorena. Hasierahasieratik Erretereriako Udalaren laguntza izan zuen proiektuak, gerora Gipuzkoako Foru Aldundiarena, eta orain Eusko Jaurlaritzarena ere badu. Lau elkarte horiek osatzen dute orain Patronatua. 2002. urtera arte kaputxinoen bajoetan egon ginen, eta gero hona etorri ginen, Niessen-era.

Noiz hasi zinen proiektu hartan kolaboratzen?

Ni orduan gaztea nintzen eta musikologia ikasketak egiten ari nintzen. 1977an tesina egitera animatu ninduen Jose Luisek, Arantzazuko artxiboan zeuden partiturak katalogatzeko asmoz. Hortik aurrera,

nire ibilbidea musika artxiboetara bideratu nuen. Bartzelonatik bueltan, Erretereriako Orereta ikastolan klaseak ematen hasi nintzen, baina koralean segitu nuen. Txistularia ere banintzen Ereintza Txistulari Elkartearen eta Andra Mariko txistulariak ere baginen.

Dena unibertso beraren barruan zegoen.

Bai. 1982an Madrilera joan nintzen artxibistika-ikasketak egitera; hurrengo urtean bueltatu nintzen eta tesiarekin hasi nintzen pixkanaka. Ordurako Jose Luis konturatu zegoen Eresbil handitzen ari zela, eta dokumentazioaren kudeaketa aldetik nolabaiteko profesionaltasuna behar zuela. Hala gertatu zen: nik esango nuke 1986a izan zela Eresbil aldatu zen urtea, sendotasun ofiziala lortu zuen urtea. Urte horretan, EAEko artxibo ofiziala bihurtu zen –ordura arte, Gipuzkoako Musika Artxiboa izan zen 1977az geroztik–, eta hiru lagun hasi ginen lanean dedikazio osoan: Jose Luis Ansorena, Mari Karmen Martinez eta ni neu, teknikari moduan.

Zein izan dira, Eresbilen egon zaren garaian, aurrera eramaten saiatu zaren asmo nagusiak?

Aurrenekoa, Eresbilen talde profesionala sortzea. Bigarrena, Eresbilen artxibo nahiz liburutegi munduen arauak ezartzea. Eta hirugarrena, paperetik ordenagailura pasatzea: digitalizazioa.

Bete al dira helburuak?

Uste dut aurreneko helburua bete dugula, orain hamar lagun baitaude Eresbilen lanean. Bigarren helburuan, esplikatzen beharra daukat zergatik aipatzen ditudan “artxiboak” eta “liburutegiak”. Liburutegiak objektuan jartzen du begiratua –liburua, aldizkaria...–; artxibistikak, ordea, kontestuan –funts edo fondoak jasotzen direnean, egilearen eta haren obra guztien arteko erlazioa interesatzen zaigu–. Hasieratik, Jose Luis Ansorena bai erakunde eta bai konposagile edo interpreteen fondoak bilatzen hasi zen, eta horrela lortu genituen, esaterako, Norberto Almandoz eta Beltran Pagola konposagileen fondoak, Maitea koroaren fondoak, Uruñelaren fondoak... eta ondoren, Usandizaga, Guridi, eta beste guztienak; orain berrehun fondo baino gehiago dauzkagu. Nik uste nuen fondo horiek

behar bezala tratatzeko hobe zela artxibistikaren arauak erabiltzea liburutegienak baino; aldiz, beste dokumentazio batzuetarako hobe zen liburutegien arauak erabiltzea. Beraz, alde horretatik oso zentro mixtoa gara. Eta, horietaz gain, dokumentazioaren mundua dago: datu-baseak, eta hori dena... Hiru mundu horiek biltzen ditu Eresbilek dokumentu musikalak kudeatzeko: liburutegiena, artxiboena eta dokumentazioarena.

Liburutegi eta artxibistika munduak uztartu behar horretan, non du bere lekua Eresbilek?

Artxibo-sistemaren baitan artxibo berezi bezala oso ondo kokatuta gaudela uste dut. Liburutegiena, beste kontu bat da; izan ere, Euskal Herrian ez daukagu liburutegi-sistema eratu bat, sistema horren burua osatu gabe baitago. Edozein naziotan liburutegiak sailkatu egiten dira: udal liburutegiak daude, Unibertsitateetakoak, eta gero liburutegi espezializatuak; eta denen buru Liburutegi Nazionala izaten da. Baina hemen ez dugu horrelakorik. Liburu Nazionala izan daiteke sare bat, baina buru bat beharrezkoa da.

Eta digitalizazioa?

Oso gauza konplexua da. 2000. urteaz geroztik, zuzendari jarri nintzenetik, argi nuen digitalizazio munduan txikiak garenok –eta Eresbil txikia da– puntu bateraino ailegatzeko ahalmena genuela, baina hortik aurrera goiko erakundeek parte hartu behar zutela. UNESCOk esaten du hori


nola egin behar den: alde batetik, kopia pisutsuak gorde behar dira (“WAV” artxiboak, soinudun fitxeroetan), eta horiek Eresbildik kanpo egon behar dira; guk hori orain dela hiru urte lortu genuen, Eusko Jaurlaritzak horren ardura hartu zuenean. Eresbilen, oster, pisu gutxiagoko kopiak gordetzen dira, erabilgarri zaizkigunak. Egitea tokatu zaidan beste gauza bat izan da Eresbilen presentzia areagotzea: lehen, hona etorri eta dokumentuen kopiak ateratzen zituzten. Gaur egun web gunea prestatu behar da ahalik eta leihio irekiena edukitzeko.

Uste duzu digitalizaziora bidean bazterrean gera daitekeela liburuzainaren funtzioa?

Ez. Liburuzainak beti izango dira beharrezkoak, liburuzaina bitartekari bat delako bezeroaren eta artxiboaren artean. Liburuzainak bilatzeko moduak asko errazten dizkio bezeroari, eta ez hori bakarrik: aurrerantzean, liburuzainak seguru aski, ez bakarrik liburuak, Interneten dagoen informazioaren kritika ere egin beharko du; kontestuen kritika. Begira zer gertatzen ari den “fake news” esaten zaien horiekin. Dokumentua aztertu egin behar da, eta horretarako beti beharko dira artxibozainak eta liburuzainak.

Zer nolako bezeroak ditu Eresbilek?

Musikariak dira asko: partituren bila etortzen diren partikularrak nahiz erakundeak (koroak, orkestrak, zuzendariak...): musikagileren baten omenezko zerbait prestatu behar dutelako, jeneralean. Ikertzaileak ere etortzen



Jon Bagüés Eresbileko artxiboan
(2020-08-13).
Argazkia: Xabier Etxabe..

zaizkigu: musikologoak eta etnomusikologoak. Eta, azkenik, jende arrunta; klase askotako kontsultak egin ohi dizkigute: Inauteriak datozela eta, erromatarrez moztortzeko, orduko musika nolakoa zen galdezka...

Zure ibilbidean aztergai izan duzu Bascongada ("Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte" edo "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País"). Dantzari dagokionez, zer esan dezakezu?

Nik uste dut dantza munduan gauza asko dagoela oraindik ikertzeko. Badakit jendea badabilela ikerketan, baina hainbeste dago ikertzeko oraindik! Adibide bat jarriko dizut: Donostian, balleta 1950. hamarkadan hasi zela uste izan da. Orain gutxi, Bascongadako album batean neska talde baten argazki batzuk agertu dira ballet jantziarekin –izan ere, nik Bascongada XVIII. mendean ikertu nuen, baina gerora ere funtzionatu zuen, bai XIX. mendean eta baita XX.aren hasieran ere—. Inork ez daki nor zen neska horien irakaslea, eta dantza-errepertorioaren arrastorik ere ez dago. Iztuetaren aportazioa hor dago, egia da, baina zer dakigu XIX. mendean egiten ziren dantzeta? Oso gutxi. XVIII. mendearekin gauza bera gertatzen da.

Sarri kontsideratu izan da Iztueta tradizio baten sortzaile. Baina pentsa liteke tradizio zaharrago baten transmisore ere badela. Zer iruditzen zaizu?

Iztuetaren partitura-bilduma aztertzen badugu, adibidez, nik uste dut ez dela gehiegi aztertu musika horiek dauzkaten formek eta egiturek dantza aldetik zer dantzetara eramaten gaituzten. Eta, dantza horiek, zer garaikoak dira? Askotan uste dugu herri-dantzak betikoak direla, eta herri-dantzak, beste gauza guztiak bezala, transformatzen joaten dira. Dantza batzuk asko aldatzen dira, eta beste batzuek aldaera eskasa dute, hor geratzen dira. Mundu hori oso aberatsa da. Jeneralean, kultura oso aldakorra izaten da: moden arabera, noski, modek influentzia handia dutelako, eta geratzen

diren gauzak geratzen dira aldatu egin direlako. Hori ikerketak esan behar du, eta nik uste dut oraindik badagoela zer ikertua.

Itzul gaitezen, hortaz, zure ikerketara: XVIII. mendera, eta Bascongadaren Bergarako Mintegira.

Bai, hori da. Bertan, beste gauzen artean, dantza ere irakasten zuten. Ez zen derrigorrezko irakasgaia, baina aztertu egiten zuten. Irakasleak ez ziren hemengoak: italiarrak ziren gehienak, eta bestela kataluniarrak. Datu hau harrigarria da, Bascongadakoek harremanik handienak kortearrekin zeuzkatelako, eta badiardi zentzuzkoena zela irakasleak Madrildik ekartzea. Kasu honetan, ordea, Mediterraneo aldera jotzen dute irakasle bila.

Ba al daukagu garai hartako dantza-errepertorioaren berririk?

Europa osoan bezala, XVIII. mendean Frantziako eskola zen nagusi: Kontradantza, Minue, Passepied, Giga... Espainiar dantzak ere bai, Boleroa, esaterako. Baina bada hemen beste kontu bat: euskal dantzak ez zituzten irakasten, baina badakigu Bergarako Mintegian ikasten zutenek bazekizkitela, eta horren froga batzuk aipatu nituen nire tesian: badoa Peñafloida kontearen semea Madrillgo kortera, dantza bat egiteko eskatu diote, eta hark zer egingo eta Karrika-dantza bat, Madrilen bertan dagoen euskaldun jendearekin batera. Beste bat ere esango dizut, Arrasaten gertatuta: ezkondu da bertan Peñafloida kontearen semeetako bat, eta haren lagunek Ezpata-dantza bat egin dute kaleetan barrena.

Dantza eta esgrimaren arteko lotura ere egiten duzu zure lanean.

Bai, jakina, Bascongadan ematen zituzten esgrima klaseak ere! Ahaztu egin zait lehen gauza bat esatea: garai hartan, gizezkoek zergatik egiten zuten dantzan? Hasierako erantzuna izan liteke: saloietan dantzatu egiten zelako. Baina gizezkoek dantzan ikasteko arrazoia ez zen hori: ez zen erabilera soziala, militarra baizik. Eta hori nola esplikatzen da? Esgrimaren oinarritzko posizioak bost dira, hain

justu, dantza klasikoak dauzkan berberak. Zer esan nahi du horrek? Dantza ikasten zutela, esgrimaren posizio basikoak ikasteko; esgrima, azkenean, gudarako prestakuntza zen.

Esaten ari zarenak gogora ekarri dit Zuberoako Maskaraden kasua. Gai hori ikertua dago, eta badakigu Frantzian esgrima eta dantza klaseak ematen zituztela soldaduska garaian, eta handik bueltan etorritako dantza-maisuek eragin nabarmena izan zutela XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran Zuberoako dantzetan.

Noski. Esan dizudan moduan, oso inportantea da konturatzea esgrimaren bost posizioak eta ballet-aren bostak berberak direla. Posizioan ondo egoteko, eta ekilibrioari eusteko, dantza bezalakorik ez da. Zaldi gainean ere ekilibrioa beharrezkoa da. Prestakuntza fisiko moduan ikusten zen dantza; gero, noski, jakintza hori aprobetxatu egingo da dibertsiorako, funtzio soziala betez.

Bascongadaren inguruko ikerketetan txistuaren inguruan ere aritu zara ikertzen.

Seguru aski, garai hartan –XVIII. mendean– finkatu ziren bai txistulari profesionala eta bai txistulari taldea ere, gaur ezagutzen ditugun moduan. Bada ezaguna den beste kontu bat: nahiz eta ez zaigun piezarik iritsi, badakigu Peñaflorida konteak txisturako doinuak idatzi zituela. Zer gertatzen da Bascongadarekin? Garaiko partitura asko galdu egin zaizkigula. Ez gara izan gauzak gordetzen oso trebeak inguru hauetan: artxibo dexente falta zaizkigu, batez ere zibil mundukoak. Arlo erlijiosoan artxibo inportanteak baditugu, baina elizetatik kanpo egiten zen musika jasotzerako garaian oso eskas aritu gara. Dantzekin antzekoa gertatzen da; gainera, dantzak beste problema bat dauka musikak ez daukana: biak dira zuzenean eta denboran gertatzen diren arteak, baina musikak suertea izan du partituraren sistema bateratu bat eraiki baitzen mundu osorako, Erdi Aroan. Dantzak ez du suerte hori eduki. Saioak egon dira dantzen koreografiak idazteko, baina ez da lortu bateratutako sistema bat; eta hori dantzaren kalterako izan da.

Bideoa etorri den arte.

Bai, lehendabizi argazkiak, eta gero bideoak. Baina kasik XX. mendearen hasierara goaz. Horrek esan nahi du dantzak, batez ere, ehun urteko dokumentazioa daukala.

Peñaflorida aipatu dugu, eta ondoren Humboldt dator, eta hark ere deskribatu zituen hemengo ohiturak, txistuaren inguruko kontuak ere bai...

Kuriosoa da hori, Humboldt-ek XIX. mende hasierako zenbait partitura jaso zituen, eta horiek badaukagula. Alemanian zeudelako gordeak! Baina hemen... oraindik ez dakit ezer lor daitekeen; ezagutzen ditugun partitura zaharrenak XIX. mende hasierakoak dira, batik bat. Harrezkerotik txistu-partitura dexente daukagu, baina XVIII. mendeko partiturak eskas antzean daukagu. Beste gai bat ere badago inportantea: musikariok ez dugula inoiz inprentarik eduki. Orain ere zaila bada, pentsa garai hartan! Partitura gehienak esku-idatziak ziren, eta txistulari bakoitzak bere kopiak gordetzen zituen. Eta dantzariak, nik uste, ez dutela horrelakorik ezagutu; dena buruz, transmisio orala izan da nagusi.

Musikari askok partiturarik erabili ere ez zuen egiten.

Dena buruz egiten zuen askok, memoria ere aparta zuten-eta. Horrela esplikatzeko da transmisioa nola egiten zen: batek pieza bat jotzen du, eta nola beti izan diren batzuk abilagoak beste batzuk baino, memoria ona duenak buruan hartzen du eta ikasi egiten du pieza hori, bere erara, moldaketekin. Transmisio horrek beste gauza bat ekartzen du: korpusa. Memoriaren eremua mugatua da, eta lekuko korpusak sortzen dira. Eta transmisioa korpusaren arabera egiten da.

Ba al duzu asmorik berriro XVIII. mendeko ikerketa horiei heltzeko?

Ondo legoke berriro XVIII. mendera bueltatzea, baina beste elementu batzuk ere badira interesatzen zaizkidanak, eta beharbada helduko diet horiei, ahal baldin badut. Esaterako, 1916an Donostiara etorri

ziren Serge Diaghilev enpresariaren *Ballets Russes* edo ballet errusiarrak. Hilabete bat baino gehiago egin zuten gure artean, Victoria Eugenia antzokian lau emanaldi eskainiz. Orain arte esaten zen bi ballet-koreografia estreinatu zirela Donostian: “Kikimora”, A. Liadov-en musika eta L. Massin-en koreografiarekin; eta “Las Meninas”, G. Fauré-n musika eta L. Massin-en koreografiarekin. Baina bada hirugarren bat ere: “Sadko”, N. Rimski-Korsakov-en musika eta A. Bolm-en koreografiarekin, lehen aldiz Estatu Batuetan eman bazen ere, Donostian egin baitzen “pre-estreinaldia”, gaurko hitzak erabilita. Oso inportantea da hau, kontuan hartzen badugu *Ballets Russes* horiek XX. mendeko ballet-ean sortu zuten iraultza. Eta, aztertzeko dagoena da, esaterako, ballet horiek lehen aldiz egiteko nortzuk izan ziren jostunak, dekoratuak egin zituztenak? Pintore batzuk ezagutzen ditugu, eta oso inportanteak eta ezagunak izan ziren.

Beranduxeago, Saski-Naskiren moduko ikuskizunak dauzkagu Donostian.

Ez da kasualidadea Saski-Naski 1928an aurkeztua izatea, Diaghilev Donostian izan zenetik hamabi urtera. Egia da bitarte horretan talde errusiar gehiago ere izan zirela Donostian, adibidez: La Chauve-Souris 1926an eta Korobok taldea 1927an; eta beharbada haien eragina handiagoa izan zela Saski-Naskiren estanpak sortzerako garaian, baina dena dela oso interesantea iruditzen zait lotura horiek aztertzea.

Nahiko nuke folklore-biltzaileen inguruan ere zerbait hitz egitea. XX. mendean erreferente izan diren biltzaileen funtsekin aritu zarete lanean Eresbilen: Azkueren eta Aita Donostiaren bildumekin.

Inportantea da konturatzea XX. mendeko musikagile inportanteenak nazionalismo musikaren inguruan aritzen zirela; horrek esan nahi du doinu herrikoietan oinarritutako musikak zirela, beraz, konpositoreek doinutegiak behar zituzten, kantutegiak.

Aita Donostiak, esaterako, bi funtzioak betetzen zituen: konpositorea zen eta, aldi berean, bilketa-lanean jardun zuen.

Bai, biltzaile moduan musikologo, etnomusikologo, bihurtzen da Aita Donostia. Hemen Aita Donostiaren obra guztiak ditugu; eta, kantutegietan, saiatu gara argitaratu direnak gureganatzen.

Nola izan zen prozesua?

Badakizu lehiaketa inportante bat izan zela 1912. urtean, eta bi bilduma aukeratu zituztela: Azkuerena, inportanteena, eta Aita Donostiarena. Aita Donostiak jarraitu egin zuen bilketa-lanetan, eta berak gorde zituen bere obra guztiak; denborarekin, 1990. hamarkadan, proiektu bat jarri zen martxan lan horiek argitaratzeko. Aita Jorge de Riezu aritu zen lan horretan, eta bera adinean aurrera zihoala, talde bat eratu zen lan hori burutzeko. Eresbil ere egon zen talde horretan, ni neu aritu nintzen Aita Jorgerekin irizpideak bateratzen. Berak konfiantza handia zuen Juan Mari Beltranekin, eta hura izan zen azkenean lana burutu zuena. Aita Donostiaren azken paperen bilduma, aldiz, orain gutxi atera da. Aita Donostiaren kasuan suertea izan da artxiboa berak gordetzen zuela.

Eta Azkuerena?

Azkueren kantutegia ezagutzen genuen, baina inprimatua zegoen zatia. Ez dakigu zergatik, galdu egin ziren lehiaketara aurkeztutako bolumen orijinalak; baina, denborarekin, Jose Luis Ansorenari partikular batek kantutegi horretako bi bolumen eman zizkion –lau bolumen edo liburutan aurkeztu zuen kantutegi-lana Azkuek–. Beranduago enteratu ginen Bizkaiko Foru Aldundiaren liburutegian beste bat zegoela, eta azkenean jakin genuen Lekeitioko parrokiaren zegoela laugarrena. Guk guztiakin hitz egin genuen eta dena digitalizatzea proposatu genien. Jose Luis Ansorenak egin zuen lana izan zen argitaratu gabeko kantuak garbira pasatzea; eta hor



Saski-Naski ikuskizunaren Argentinako fondoak ["A76"]. Luis Mujikaren koreografia apunteak: kontrapasa gipuzkoar erara.

badaude mila eta laurehun kanta berri. Hori oraindik argitaratu gabeko lan bat da. Azkueren argitaratu gabeko lan horiek ateratzeko proiektu bat ere bazen, baina 2008ko krisia etorri zen eta orain zintzilik dago dena. Espero dut horri ere helduko diogula noizbait.

Dena dela, kantutegiaren zati handi bat sarean dago.

Eusko Ikaskuntzarekin proiektu bat jarri zen martxan, "Euskal Kantutegia", sarean dagoena¹. Proiektu oso konpletoa zen, ez zen bakarrik Azkueren kantutegi osoa argitaratzea, baizik eta orain arte egindako kantutegi guztien digitalizazioa ere bai. Hori egina dago. Datu-base bat ere egin zen, eta hori guztia sarean jarri. Kontua zen proiektu hori hobetzea: irudiak biltzea eta, Azkueren kasuan, kantutegia osatzea.

Zenbat kantutegi dauzkazue Eresbilen?

Guztira, 167 kantutegi dauzkagu, musikadunak; testu hutsekoak, 189; eta esku-liburuak, 206. Dantza-partiturak ere mordoska dauzkagu: zortzikoak, fandangoak, baltsak, pasodobleak, jotak, habanerak, polkak, mazurkak, biribiletak, tangoak eta txotisak; 3.278 pieza guztira. Horren inguruan esan behar dut martxoan geneukala pentsatua Mintegi bat egitea, Musikene eta Soinuenearekin elkarlanean, baina justu orduan pandemia etorri zen eta dena bertan behera geratu da. Uste dut udazken aldera berriro egitekotan direla².

1. Helbide honetan dago: "<http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/dokumentu-fondoa/euskal-kantutegia/>".

2. «Herri-musikaren 19. Jardunaldiak. Errepertorio herrikoia: bilketa eta antolaketa». COVID19aren zela-eta 2020ko martxoan egin behar zirenak irailera atzeratu zen lehendabizi, eta ondoren datarik jarri gabe atzeratu ziren.



Saski-Naski ikuskizunaren Argentinako fondoa ["A76"]. Luis Mujikaren koreografia apunteak: paseoaen urratsak eta Belauntxikoa.

Hitz egin dezagun dantzaren inguruko dokumentazioaz. Zer daukazue Eresbilen?

Badauzkagu hemen zenbait funts: José Uruñelarena, Arabako dantzen inguruko; Goizaldi dantza taldearen partitura bilduma bat; Saski-Naski folklore-ikuskizunaren bi funts dauzkagu, baina ez Donostiako ikuskizunarena, Argentinako ikuskizunarena baizik –batean Aita Madinak moldatutako partiturak jasotzen dira, eta bestean argazkiak, programak, prentsa-mozketak eta horrelakoak–; Jaime Albillos-en ikusentzuneke zintak dauzkagu, Euskal Herrian barrena egindako dantzak jasotzen dituen; Kresala dantza taldearen zenbait dokumentu; eta, oraintxe sartzeaz dago, Anexa dantza taldearen artxiboa. Beharbada jendeak ez du ezagutuko azken talde hau: aurren bete dira berrogeita hamar urte aurreneko emanaldia eskaini zutela³, eta nahiz eta lau urte

bestetik ez zuten iraun, estatu osoko aurreneko dantza-garaikide balleta izan zen. Jose Lainez izan zen sortzailea, bere emazte Concha Martinezekin batera; Donostiara bizitzera etorri zirenean sortu zuten taldea. Aspalditik genbiltzan funts horren atzetik, eta azkenean lortu dugu; argazki pila bat dituzte, eta gure asmoa da informazio horrekin web gune bat sortzea.

Dantzaren Dokumentazio Zentroaz galdetu behar dizut. Zertan da proiektu hori?

Dantzaren sektoreak urte luzetan eskatu duen gauza bat izan da hori; alegia, Eresbilen antzeko zerbait dantzarentzat egitea. Gu ere kezkatuta geunden, eta Oier Araolazarekin harremanetan jarrita, pentsatu genuen zerbait egiten hastea Eresbilen baitan. Horrela, bi proiektu jarri ziren martxan Eusko Jaurilaritzaren Kultura Sailaren babesarekin: alde batetik, liburutegi- eta dokumentazio-gune bat; eta, bestetik, dantza-erakundeek izan zitzaizkiren dantzaren inguruko artxiboen bilduma bat. Batez ere bideoak, VHSak, galtzeko arriskuan egon

3. 1970eko ekainaren 14an egin zuen Anexa taldeak estreinaldia Donostiako Victoria Eugenia antzokian, Donostiako Orfeoia-ekin batean antolatutako jaialdian.

zitezkeenak; lehendabizi materiala eskatu, gero digitalizatu, eta azkenik material orijinala jabeei bueltatu. Lehenengo proiektua 2009an hasi zen: Eusko Jaurlaritzak, hainbat bilera egin ostean, martxan jartzea erabaki zuen dokumentazio-gune hori. Guk, Eresbilek, onartu genuen gune edo bilduma hori hemen egotea; eta, nik esan nuen: egin dezagun dantzarako bilduma propio bat, eta inoiz bilduma hori beste leku batera eramatea pentsatuko balitz, erraza litzateke hartu eta dagoen bezala beste leku batera eramatea. Badira hamaika urte martxan jarri zela! Eta, oraingoz, ondo doa: mila eta laurehun liburu daukagu, berrehun bideo inguru, beste horrenbeste DVD, kartelak, bederatz aldizkariren harpidetza, eta dantzarekin lotutako milatik gora dossier dokumental.

Nola antolatzen zarete lan hori egiteko?

Eresbilen baitan egiten da: Eusko Jaurlaritzak diru bat ematen digu horretarako, eta guk diru horrekin dokumentuak erosi eta katalogatu egiten ditugu. Gela bat dugu propio dokumentu horiek gordetzeko. Kontsultagarri daude, bai bertara etorritz gero, eta bai gure katalogoan. Horretaz aparte, instituzioei eskatzen diegu –Aldundiei, Udalei, Eusko Jaurlaritzari– beraiek dantzaren inguruan argitaratzen duten informazioa –katalogoak, triptikoak...– guri ere bidaltzeko.

Eta beste proiektua, digitalizazioarena?

Eusko Jaurlaritzak sustatu zuen proiektua, eta Eresbil kudeatzailea izan zen. Eresbilek lehiaketa bat atera zuen lan hori egiteko, eta “dantzan.com” izan zen irabazle. Modu honetan funtzionatzen dugu: “dantzan.com” arduratzen da dantzaren inguruko elkarteekin harremanetan jartzeaz, eta haiei dokumentazioa eskatzeaz; gero informazioa trakeatu, eta ondoren guri bidaltzen digute. Guk, trakeo horren arabera, katalogatu egiten dugu eta gorde egiten dugu. Hemen kopia bat gordetzen da, eta Eusko Jaurlaritzan orijinala. Orain falta dena da taldeen baimena lortzea eta erabakitzea zer bideo jarriko diren ikusgai.

Hortaz, oraindik ez da argitaratu?

Ez. Jakin daitekeena da zer dagoen, eta trakeoa ere begira daiteke. 1455 bideo daude, gehienak kontsultagarri. Baina edukia ez da argitaratu. Orain ikusi behar dena da ea ideia hori dena lotu daitekeen Eusko Jaurlaritzara martxan jartzen ari den liburutegi digitalarekin. Prozesu hauek konplejoak dira. Nik uste proiektu hau ondo doala; izan ere, VHSak daukaten problema da urteekin desagertu egiten direla, eta behinik behin horiek gorde dira.

Esan daiteke, hortaz, Dantzaren Dokumentazio Zentroa bide honetik doala?

Bai. Nahiz eta Dokumentazio Zentroa bera ez dagoen oraindik, hemen bide bat hasi dugu eta inportantea da hori. Azken batean, dokumentazioa non gordetzen den ez da gauzarik inportanteena, kontua da dokumentazioa egotea. Kontuan hartu, arteetan, bi besterik ez direla Dokumentazio Zentroa dutenak: zinea –Filmoteca Vasca– eta musika –Eresbil–. Antzerkiak ez dauka zentro bat, dantzak ez dauka, zirkoak ez dauka, arte plastikoek ez daukate...

Zergatik ote da? Arte horiek ez daukatelako behar adinako indarririk presioa egiteko? Borondate politikoa falta da?

Ekonomia egonkor bat ere behar da. 2008an krisia izan genuen, eta horrek ez du batere laguntzen. Eta orain datorrenarekin...konplikatzan ari da kontua. Horregatik uste dut gutxienez zerbait izatea inportantea dela.


Bukatzeko: ba al daukazu orain proiekturik buruan?

Gauza handirik ez... Hasteko, deskantsua. Gero, paperak txukuntzea. Eresbilekin badaude oraindik gauza batzuk konpontzeko; erdi-egina dagoen proiektu bat badago, egina egon behar zuena: Euskal Herriko musika fondoan mapa. Azkeneko bultzada falta zaio. Espero dut lehenbailehen bukatzea. Beste proiektu txikiago batzuk ere badaude, eta indarra baldin badaukatz egingo dut zerbait. Hainbeste dago oraindik egiteko! 

LA DANZA VASCA EN ARGENTINA

- Autor: Aitor Alava Zurimendi. -

Lehen pertsonan, migrazioaren edo diasporaren azterketa intimista Ameriketara, eta euskal kulturaren motxilak eta, bereziki, euskal dantzak latitude haietan duen eragina.



Mendoza y su torre.


“Sentarse ante un teclado¹, para hacer valer la premisa, todo lo que escribas, podrá ser usado. Me separo unos meses de él, me tomo mi tiempo. Leo, escucho, pregunto y vuelvo a leer. Entre medias dudo, pongo en valor las operaciones matemáticas que no suman y es ahí, justo en los estertores de una copiosa comida, a medio camino entre el lugar donde el río es de plata y la Suiza de

los Andes², donde tomo una decisión. Todo debe ser contado. Costará entender el relato, sino te separas de tu propia verdad. Una vez hecho esta acción, Mendoza y su Torre, Del Gliptodonte al Oso y El río que remonta hacia el mar, cobrarán sentido³.”

2. Ciudad de Macachín, reunido para aportar ideas para la Semana Vasca del 2020, A mediados de Febrero.

3. Publicación a finales de este 2020.

1. Así comienza el artículo Danza Vasca en Argentina.



Del gliptodonte al oso

MENDOZA Y SU TORRE

Sala de conferencias de la UPV en Leioa, Departamento de Ciencias, Jornadas Culturales, exceptuando los organizadores, escaso público asistente. Allí estábamos, hace unos 23-24 años. Frescas y sin reposar estaban las metáforas de aquel libro⁴. El disertante, durante hora y media fue y vino, vino y nunca se fue. Para los algo leídos, debo contar, costaba seguirlo. El resto, catedráticos todos, pensando en las nuevas ciencias sospecho. Supongo que al ver la película DANTZA, ellos se habrán acordado como el señor de andar pausado, unió biología, historia, antropología, religión, varias cosas más y les dijo “la danza no se escapa a la ciencia”. De soslayo un par de anécdotas comenzaron a acompañar y dibujar el sendero de mi vida. La primera, pensar como la inmigración no voluntaria provoca desequilibrios, solo de esta mane-

ra las danzas de Madeira quedaron conformadas como protectoras de tu propia pareja, ya que el público recién bajado de los barcos, no lo hacía con las mejores intenciones. La segunda, a día de hoy, la tengo en el estante mental de las tareas pendientes... él viajó al Río de La Plata, hizo una serie de propuestas para evolucionar “la plaza” y como dijo “no sé porque, no gustaron, no cuajaron”. Muchos años después contó esta segunda experiencia, estando 14+1 argentinos presentes, nadie se dio por aludido@.

Un grupo reducido de estudiantes⁵ recorría las calles no muy lejanas al gran conjunto monumental de los árabes. Cuando un grupo de hogareños debatía tapa va, tapa viene, con la camarera rozagante en simpatía, sostenida con un acento peculiar. Si nosotros os fundamos, le espetaron a su sonriente rostro. “Si el-Pedro era de aquí cerca, de Guadix!”, “¿Pedro qué?” pre-

4. Bailar el caos de J:A.Urbeltz.

5. Practicas de Cartografía en Granada. 1994.

guntamos, “Pedro de Mendoza, pues es Vasco”, le dijimos. Nos miraron como las vacas al tren y siguieron con la charla tras-oceánica. Justo en ese año, Festival Internacional de Folklore de Portugalete. Grupo Argentino recorriendo los pueblos de Euskal Herria. Años después, unos 20, descubrimos, como entre aquellos bailarines, estaban varios de los profesores de mis Profesorados de Folklore y Tango.

Dos años antes de mi venida, una compañera de reivindicaciones, en la histórica Herriko de Laudio, me espeta, “tu antes que una fábrica, ¿porqué no emigras?”, “¿a dónde?” le dije, “pues, a los Centros Vascos en *yanquelandia* hay muchos y en Argentina más!”. La miré pensando, si yo nunca me voy a mover de Zuhatza. Meses después en la *ganbara* de una coqueta *etxe/casa* en Basusarri, “el maestro de *Dantza Plazan*⁶” nos relataba, *patxaran* casero de nuestra *amatxu* de por medio, a un grupo de *aiaratarrak* sus andanzas por Mar del Plata acompañando como conductor de *dantza* a Tapia eta Leturia. Solo recuerdo que ordenado no debió salir del todo, la romería. Un año más tarde un rosarino de apellido Bilbao, al que le faltan dos centímetros para los dos metros, fue mi compañero de habitación durante varios meses en Maizpide. Una abogada de Mar del Plata estuvo en nuestra clase, la taberna se la dejábamos para Giles -otro argento- y justo ahí apareció Marina en mi vida. Mes de mayo del 2004, cena en Zeraín después de un *Dantza Plaza* que organizaba para *trikitriariak* jóvenes el gran J. Tapia con la batuta de Patxi Perez, ¡ah! la cena, varios consejos me dio el Joseba para mi inminente viaje. Un encargo, *Dantza Plazan* en el Antiguo en Donosti, fue mi primero... hete aquí que al *trikitriari* me lo cruzo 4 meses después en la Semana Vasca de La Plata. Una cena despedida en una *sagardotegi*, con más de 100 amigos, entre medio de 5 días festivos muchas veces relatados me colocaron en un avión al cual casi no subo por las normas que al presidente hispánico de aquel momento se le ocurrió cambiar sin avisar.

Un viaje, el primero, 5 horas de turbulencias feroces para un aterrizaje con la azafata en jefe santiguándose... tarde años en analizar lo vivido, mientras el pequeño *ayalés*, pensaba como salir a esa gran urbe, de lo que somos casi todos en nuestros propios pueblos de Euskal Herria, dueños y señores de nuestra propia Torre. Ese cuadrilítero perfecto como la de Mendoza. Nada vul

DEL GLIPTODONTE AL OSO

Pisar Buenos Aires, un día entre semana con hordas de jóvenes con la brújula perdida, me hizo comprender que un mundo nuevo comenzaba para mí. Era el final de la noche del día del amigo. Un relámpago mental, ya me avisó, a partir de entonces, nada sería, igual.

Los tamaños. No importa estar en pleno siglo de la conectividad. Un cerca, 250/300 km, lo que en Euskal Herria sería salirse del mapa, esta puede ser una distancia normal, para llegar a un asado dominical y volverse con la tripa rebosante. Interiorizando la inmensidad de la Pampa argentina, en muy cómodos buses, como debió ser no su “repopulación” desde tiempos de los Mendoza / Garai, sino durante la mitad del siglo XX, con los maestros de danza que visitaban todos los fines de semana varios Centros Vascos de la provincia de Buenos Aires.

Ver los carteles de las rutas, hace comprender la presencia vasca en este vasto país. Berazategi, Ezpeleta, Idiazabal, Lezama, Tolosa... el número asombra. Las fechas patrias, nos dan sucesos y nombres donde sus personajes portaban apellidos vascos, protagonistas del fundador patrio, el 25 de Mayo. Se datan en el país más del doble de apellidos que en nuestro suelo vasco, cerca de 24.000⁷. Estas cifras, tan Argentinas, en su envergadura, debieran esconder una presencia cultural vasca desorbitante. Es en este instante, donde, solo hay una persona que puede,

6. Patxi Perez.

7. Dato aportado por la Fundación JUAN DE GARAI.

aglutinar el conocimiento y la bibliografía para desenmascarar y aflorar la luz sobre la historia de la danza vasca en la Argentina. Esa persona es el Profesor⁸, MIKEL EZKERRO.

Año 36, clave en el mundo, y para los vascos más. Pareciera el inicio del todo, pero no es así. Satur Salegi⁹ y Nemesio Olariaga¹⁰, desde Buenos Aires y Maipu, décadas atrás, comenzaron con respectivos grupos de danza. La presencia de Guridi en Buenos Aires pone en el escenario del teatro Colon a los *dantzaris* de Accion Vasca, ya que en el ballet estable del mimo, no encontraba el “carácter que necesitaba”, para su *Opera Amaia*¹¹. Es a partir de este instante donde se comienza a labrar un sendero y camino para los cuerpos de baile dentro de los Centros Vascos. Estos no escaparon a las tendencias e “imposiciones” venidas desde tierra vasca. Así el intento por constituir la *dantzari dantza* en la danza vasca nacional, si podemos decir que lo consiguió en Argentina.

Paralelamente a la etapa histórica del franquismo se consolida en los Centros Vascos de la Argentina un repertorio con danzas de Bizkaia y Gipuzkoa¹². Es a partir del 1946, con el ballet *Saski Naski*¹³ que llega el hasta hoy llamado “Suletino”. En este transcurrir donde los esfuerzos de varios profesores fueron inagotables: Xabier Olaizola, Bingen Ararloza, Juan Bautista de Zumarraga, Satur Salegi, Lucio Etxaniz, Jose Mari Etxeberria y Marita Erkoreka, son algunos de los transmisores de la danza vasca más destacados. Estas grandes trayectorias también han dejado sabidurías para nuestros días, donde hoy toleramos abiertamente al otro como es, pero en tiempos pasados no fue tan sencillo.

Juan Manuel Lopetegi, en el año 1989¹⁴, deja un pequeño texto donde explica cómo se adapta el repertorio vasco en Argentina y el *txistulari* José María Gutiérrez data a finales de los 90 como concretaron formas y tiempos musicales en las danzas descritas por Lopetegi años atrás. Al unísono, un nuevo camino se abría. Ese fósil viviente, tiene a mediados de los 90, un revivir con Juan Antonio Urbeltz. Cursos y charlas en Argentina tratan de revitalizar y actualizar el repertorio de los Centros Vascos. A la par, Marita Erkoreka¹⁵, amplía la territorialidad vasca, apareciendo *Ingurutxo* como danza en las Semanas Nacionales Vascas.

EL RÍO QUE REMONTA HACIA EL MAR

Una boardilla/*ganbara* en Basusarri, *patxaran* de Maria Angeles de por medio, nos puso en antecedentes del “kilombo” argentino, como definiera años después *Gari Otamendi*¹⁶. Era finales del 2001, la *trikitixa* se había convertido en el sumun y centro dancístico de los Centros Vascos, el relato del *maisú* Patxi Perez, al acompañar a Tapia eta Leturia... por la Semana Vasca de Mar del Plata 2001. Un año después estábamos en el *Kafe Antzoki* de Bilbo y allí tuvimos el primer contacto con *dantzaris* de la Diáspora. En ese contacto una persona destacó por encima, Lisa Korkostegi¹⁷(16). No tantos meses después, circunstancias de la vida, el de *Zuhatza*, acaba viviendo en el barrio porteño de caballito, esto desde 16 años ya.

Llegado a este punto, tomo unas palabras¹⁷ escuchadas hace no muchos días en los “vivos” del Centro Vasco de San Nicolas, “imágenes ancladas en el tiempo y una ley no-escrita, por la cual no se habla de política”, esta definición hecha para los Centros Vascos de Argentina,

8. Su saber lo convierten en ello.

9. Director de Acción Vasca 1924.

10. Grupo Irrintzi, año 1909.

11. Agosto de 1930.

12. Ezpata dantza, Arretxinaga, Arcos(uztai txiki), fandango y arin arin.

13. Luis Muxika funda Saski Naski.

14. Texto en Dantz-ango, La plaza en Argentina-II.


15. Centro vasco de Maipu.

16. Artículo en Dantza.eus.

17. Dantzari Norteamericana, actualmente residente en reno.

lo dijo y pensó Jasone, hace 4 años en la Semana Vasca de Nekotxea. En esa fiesta, estaba presente Joseba Altube y Sra¹⁸. Asistió a la reunión de directores pre-velada y justo al final, personalmente di el pie para que se pudiera presentar. Nos invito a seguir una amena charla en la taberna. Solo dos personas tomamos la posta y compartimos un par de vinos con ellos dos, el que les escribe y Josetxo Astolfi. Josetxo¹⁹ es el único sobreviviente activo, entre los Argentinos que participaron del Gaztemundu. 2002, dedicado a la *Euskal Dantza*. La presencia de Altube se repitió dos años después coincidiendo con la Semana Vasca en Mar del Plata. Ofreciendo charlas y romerías, fueron contados con una mano las personas e instituciones²⁰ que se acercaron a él. El gran vínculo de los Centros Vascos en la actualidad, pareciera pasar solamente por la participación o no del programa GAZTEMUNDU.

Tres ediciones de programa dedicadas a la Danza Vasca, 2002-2014-2018. La edición última, es en estos momentos cuando debiera estar dando sus frutos. En las dos anteriores, sumando entre las dos 40 los participantes Argentinos, solo 3 de ellos²¹ siguen al frente de grupos de *dantza*. Cuando llegue al país, comprobé como en cada Centro Vasco había 5 DVDs, repartidos por el Gobierno Vasco, con un resumen²² más que amplio del Gaztemundu 2002. En ellos, llama la atención la magistral clase impartida por Oier Araolaza, sobre las danzas de la Maskarada de Zuberoa, donde solo 1/3 de los participantes participa de ella mientras el resto descansaba al costado o tomaban mate. Esta situación desidiosa, en principio no ocurrió en el 2014, donde fui participante. Año donde el programa en



El río que remonta hacia el mar

un 80% fue indirectamente (o no), explicado expresamente hacia la delegación Argentina, éramos 15 de 25 participantes. En él se desgranaron, todas y cada una de las danzas llamadas de plaza en Argentina, las cuales se bailan cada domingo en cada Semana Vasca anual. Al finalizar aquel Gaztemundu, en la última reunión grupal antes que participáramos del *Erromeri Eguna* en Orereta. Sentado a la derecha de los organizadores, fui el primero en valorar el curso, y palabra más o menos dije, “el Gaztemundu, comienza ahora”. Intenté acercar propuestas superadoras en el 2015 y 16 para las Semanas Vascas, y solamente como co-organizador en 2017 en San Nicolas, logramos introducir por única vez, el *Zortziko* y *Ezpata Joku Txikia* en la *Ezpata Dantza* (*dantzari dantza*), además de bailar. el *Agurra* tal como nos marcaron Larrea y Arregi de Argia. En los años posteriores, se volvió al cauce histórico y a las formas de siempre, “*ezpata dantza*, arcos de flores, san miguel, arcos mixtos, fandango y *arin arin*.”

18. Palabras de Jasone Agirre Garitaonandia.

19. Joseba Altube, lehendakari de Euskal Dantzarien Biltzarra.

20. Actualmente director del centro vasco de Viedma/Patagones.

21. Euskal Echea-Llavallol y Ekin Kultur Talde, solamente en el gran Buenos Aires.

22. Sin contarme a mí, Arantza Irazusta, Josetxo Astolfi y Mauro Uranga (creo que sigue).

Cursos, encuentros, clases presenciales²³, en estos 16 años no representa una lista la cual no la podamos abordar desde este espacio. En el 2006 Mari Luz Artetxe estando al frente de todos los Centros Vascos de Argentina, me pidió dar un curso de dos días. En dos ocasiones posteriores repetí la experiencia pero partiendo desde la iniciativa de los Centros Vascos de Tamdil (2011) y San Nicolas (2019) y sumándose quien quiso a participar. Un mes después de finalizar el Gaze-mundu 2014 Ion Maia volvía a explicar *Agurra* y *Uztai Txiki* ante unos 70 *dantzaris* de unos 30 Centros Vascos. Durante 3 años consecutivos (2014-15-16) la asociación Uzturre²⁴, ha recorrido Argentina impartiendo cursos y siempre haciendo un fin de semana central en Buenos Aires. El año pasado, 2019, Gari Otamendi y Telmo Esnal abrieron la tripas para todos de la genial película DANTZA y ofrecieron varios cursos²⁵ y charlas. Después de citar todos los cursos dados/impartidos, pregunté directamente a la FEVA²⁶, que nivel de seguimiento y evolución/valoración posterior se continuaba haciendo de los mismos. Ello corresponde a los Centros Vascos en particular y su accionar, así fue la respuesta.

En paralelo, un grupo de centros con sus respectivos cuerpos de baile, ha tenido un transitar, con características y profesores históricos compartidos, pero en este siglo XXI, como nos cuenta Maria del Mar Alderete²⁷, los 4 centros navarros de Argentina²⁸ que cuentan con cuerpos estables de *dantzaris* (niños y adultos), gracias a los asiduos cursos presenciales de una semana impartidos en Argentina en los últimos 20 años, por Ortizadar Taldea y el grupo municipal de *dantzak* de Tuter. Teniendo los cuerpos de bailes de los centros navarros, un repertorio

común²⁹ muy amplio y actualizado, el cual al finalizar cada curso, una semana de duración promedio, se realiza una actuación/muestra publica, con todo lo aprendido/realizado, de las que en un par de ocasiones, he sido público, presente.

La visibilidad en cada Semana Nacional Vasca, es diferente año a año, pero si hay pautas y marcas que se repiten y podríamos decir, están *standarizadas*. Cuando la organización ha puesto un foco y un eje sobre el contenido a mostrar, como en los casos de San Nicolas-2017 y Bahía Blanca-2019, las propuestas en el escenario con danzas tradicionales han predominado. Cuando los organizadores dejan en libertad, la media, cada 25 danzas, 12+1 suelen ser *arin-arinak*, vestidos, con arcos, *makilak*, etc. Josetxo Astolfi, desde su trayectoria, *“hemos mejorado pero, en muchos casos, se han desnaturalizado danzas y pasos o se ha abusado de las coreografías en detrimento de lo exclusivamente tradicional”* y Agustina Etxeberri, participante del Gaztemundu 2018 piensa *“el participar de este curso los 15 días me hizo abrir muchísimo más la mente, poder ver qué era lo que verdaderamente es la dantza tradicional y cuales las modificaciones entre muchas cosas”*. Como todo programa, siendo mejorable, en sus tres ediciones, ha orientado en ser una muestra y paneo de la danza tradicional vasca en la actualidad. En un momento donde un nuevo programa *Dantza Munduan* se avecina una mirada histórica sería necesaria. Casi en paralelo, en el calendario unas semanas antes, se desarrolla la Fiesta Vasca del Colegio Euskal Echea, correspondiente a su sede en Llavallol. Más de un Millar de *dantzaris* que año a año desarrollan un amplio programa de danzas tradicionales vascas³⁰. Siendo un hito,

23. Cursos dirigidos a la totalidad de Centros Vascos.

24. Asociación ligada al Partido Nacionalista Vasco.

25. En Buenos Aires, explicaron Galaen Esku dantza.

26. Federación de Entidades Vasco Argentinas. Reunión mantenida con la Mesa chica de la FEVA el 13/12/19

27. Directora del grupo de danzas del centro navarro de Buenos Aires.

28. Centros navarros en Mendoza, Bolibar, Rosario ciudad de Buenos Aires.

29. Paloteado de Cortes, Paloteado de Murchante, Paloteado de San Juan de Tudela.

El popular Baile de la Era de Estella, Baile de la Balsa de Torralba de Río, Ballestas de San Juan; Ingurutxo de Iribas, Esku dantza de Imotz, Esku dantza de Olagüe; Danzas de Ochagavía; Danzas de Valcarlos/Luzaide; Zortziko de Lantz; Irri dantzak, Zubigainekoa de Lesaka, Baile de Lesaka. Jota de Sangüesa, Jota de Tudela, Jota de Tafalla y fuera del repertorio navarro, danzas guipuzcoanas, alavesas y bizkainas (Matelota, Zinta dantza, Uztai txikieta etc.)

30. Agurra, Ezpata dantza, Entradillas, Trenzado de Kortes, Imotz, bailaos de Villabuena, Kaixarranka, algunas de las Euskal Dantzak que son parte del repertorio fijo del colegio.

cuando en el 2018, 5 *neskak* bailaron por primera vez la *kaixarranka*, después de una gestión/carta dirigida a la propia Lekeitio y afirmativamente contestada.

Los *dantzaris*, en Euskal Herrria, en algunas ocasiones hemos estado ante situaciones y promulgaciones de libertades difíciles, esto a menor escala ha tenido varios episodios a este lado del océano. Una anécdota de pasillo, cuenta como a finales de los 80 la persona encargada para la Diáspora Vasca, en un festejo en Buenos Aires, quería parar a los *dantzaris* en su *martxa* en plena actuación, al decir, “*están entrando con el himno de HB*”, se refería a la canción *Eusko Gudariak*. Así por esas leyes no escritas, ya mencionadas, llegamos al año 2007 en Rosario, donde la premisa en tierra vasca, no se hace política en las fiestas, tuvo un triste episodio, donde varios *dantzaris* de Rosario fueron expulsados de su Centro Vasco durante años, por diferencias en la politización de la fiesta. Justo 10 años, más tarde *Eusko Kultur Etxea*³¹, perpetuó un urdido plan en el tiempo, para expulsar y apropiarse de todo el material/vestuario del aquel entonces el grupo *Ekin Dantzari taldea*. El reclamo a día de hoy sigue vigente, sin que ninguna autoridad haya intermediado por el grupo, tan maltratado.

El euskera, transita históricamente por los Centro Vascos de la Argentina. Con mucho pesar allá por Agosto del 2004, un *dantzari* me decía que para ser vasco, no hace falta el euskera. En los últimos años esta frase pertenece por suerte al pasado, cada vez más son más los *dantzaris* zambulléndose en nuestra lengua y a la vez está apareciendo una nueva figura, monitor de danza y profesor de euskera, dentro de un mismo ser.

Estamos a mediados de este 2020, sabiendo que casi, en este lado del mundo, ni empezó³² y sabemos que lo podemos ir dando por terminado. Comenzamos con unas prometedoras y

fructíferas reuniones en Macachín para la elaboración de la Semana Vasca 2020. Todas estas ideas se podrán realizar un año después, ya que la misma ha sido pospuesta un año. Este periodo pandémico, está sirviendo para que todos mostremos desde la virtualidad parte de nuestro conocimiento. Reflexionar que hacemos, donde estamos parados y hacia dónde vamos, no es patrimonio exclusivo de la diáspora vasca.

EPÍLOGO

*“la torre del oso y un mar”
el secreto de la noche
comenzó en un barco
si en las Azores danzaban
protegiendo las espaldas
un horizonte lleno de misterios
esperaba
piedra a piedra toda,
la que no tiene
santa maria del buen aire
hayas, las piedras,
como cerca
en el vecino Uruguay
los charruas, más sólidos
al norte del río del plata
bandoneones, por fuelles del infierno
fuelles del infierno, marcando la senda de ani-
males extintos
mientras, el oso, si llegó, no se le quiso,,, tanto.
noches sin dormir,
aparatos voladores, que acercan sueños
o los alejan
gimnásticas las tablas
los pasos y sus atajos
la paciencia del gaucho
contrapuesta
la velocidad y la calma
en la prisa del aplauso
grandes esfuerzos
sudores válidos
en aguas que corren
no todas hacia el mar*

31. Maria Elena Etxeberri de Irujo Olló, su Presidenta Lehendakari, desde que pisé suelo Argentino, en el 2004.

32. En argentina en cuarentena por el Covid-19 desde el 18 de Marzo.

Aitor Alava Zurimendi,
6 de junio en Buenos Aires. 

TECHNO~FOLKLORE AURREKOA ETA ETORKIZUN ANTROPOLOGIA.

SAIAKERA SASI ETHNOGRAPHIKOA

- Egilea: Kepa Fernandez de Larrinoa (Antonin Artaud Neuro-Anthropologia Lantegia).

Argazkiak: Emilio Xabier Dueñas-



Bideo-edizioa aplikazioa.

BAGA

Badago jakinarlo ezberdinartean, galderak egin eta erantzun bila iharduteko, esparru amankomuneko bat. Abstrakzio galderak daude. Arrapostuak aurkitzeko, ibilbideak darabiltzagu, urratsak badaude. Egon ere, jasotako erantzunak adierazteko, espresamoldeak daude.

Theoria... Praktika... Theoria...
Praktika... Theoria... Praktika...

Zuzenbidea. Bai, lege oroitzapena, aginte sakratuaren gomuta oroahaltsua. Zientzia politikoa. Beronek latinaren inperioa -hizkuntz-inperioa- ahanzi izan badu ere, inperioaren latina dazagu egun ere. Ars memoriae. Aphoteosis. Damnatio.

Sekretuzko ospakizunak. Subertzio Abertzio. Abertz-Zion, urrutikoa eta bertakoa. Abertz-Zion. Divi gisa laudarioko gorpuzkinak eta guneak.

Gomuta-politika. Eta politikarik ezaren gomuta.

Historia. Zihurrenik, de facto.

Antropologia. Polizia zientifikoari dagokion antropologia. Antonin Artaud Centre de Dramatologie et Neuropensé edo Research Centre for the Intractable Conflict moduko bulegoetan garatzeko antropologia. Forensika nahiz Gizarte-kultura.

Betierekopasarritoabarneratuden antropologiaz dihardut. Pierre Clusters-en pasarritoei buruzko



“Lekeitioko Kaxarranka”: Jendea baino mugikorrek eta kamarak gehiago Lekeitioko San Pedro egunean.

adierazpenez dihardut. Bortitz-jazarpenez dihardut. Norberak, gizabanako zein taldekide lez, bizitza osoan barrena, heriotzaz haragotik, baita sortu aurrexetik ere, jasan behar izan duen amaigabeko indarkeriaz, pasarritoaren denbora eta espazio zedarriak gaititu dituen indarrak dihardut. Indar tankera honen biolentzia keriaz dihardun antropologiaz dihardut.

Zuzenbidea... Zientzia Politikoa...
 Historia... Antropologia... Theoria...
 Praktika... Theoria... Praktika... Theoria...
 Praktika... Zuzenbidea... Praktika...
 Zientzia Politikoa... Theoria... Historia...
 Praktika... Antropologia... Theoria...

Delako ditziplina-artekotasunari teoria demaiokegu, noski. Delako inter-ditzipinatetasunari “ter” hotsa kenduko bagenio, inditzipinitatea genuke. Kanon akademikotik kanpoko ikuspegiak, esamoldeak eta pentsaerak hornituzko genituzke.

BIGA

Akademia-hizkikako formula zuzenari -jantzirik daraman neutralitate estetika, inozo-azalari-okerra erakustea da indiziplina

¿Qué meto? ¿Meto todo? Galde dagite egungo unibertsitariak, Boloniako belaunaldikoek, gradu izeneko zein master izeneko azken urteko idazlanaren aitzinean daudenean. Ikasleagoak ezezik, irakasleek ere erabil ohi dute “meter”

aditza idazlangintzaz ari direnean, ikasleekin tutore lanetan dihardutenean, hain zuzen. Zer “sartzen” dut nire izkribu akademiko batetan? Tankil egon nadin nire tutore beronek argituko dit neure arrenkura bulego ordu mutu horietan. *Kopiatu eta itsatsi kultura.* Boloniagizakien jakin iturri Meto-Todo-Logiaren auzia.

Techno-folkloreaurreko garaikedeari osterantzeko metodologia darabilkio. Bestelako galderak, bertzelako eginahalak. Ezinezko itaunak eta balirazko ezaguerak. Ezbaidako adi-erak eta pentsa-moldakaitzak. Paul Feyerabend dezagun gogoan, partikularrean, kutxatik at, kutxa-helbidebako elejoketa jostagarri eta libertario hauxe:

(...) para comenzar este examen debe haber en primer lugar una vara de medir. Por ello, el primer paso en nuestra crítica de conceptos habituales y reacciones habituales va a consistir en salirse del círculo, ya sea inventando un sistema conceptual, por ejemplo una nueva teoría, que entre en conflicto con los resultados observacionales más cuidadosamente establecidos y lleve la confusión hasta los principios teóricos más plausibles, ya sea importando semejante sistema de fuera de la ciencia, de la religión, de la mitología, de las ideas de los incompetentes, o de las incoherencias de los locos. Este paso es, de nuevo contrainductivo (Ensayo contra el método, 51-52. oirrialdeetan).

Metodologia... Kongruentziarik ez-Logia... Jakin Kuntxa... Jakin Kutxa...

Giza gogoeta, jakinkutxan barrena untsa dea?

HIGA

Techno-folkloreaurreko garaikidea, egun mamua da, etorkizun-Antropologian de facto-Historia dateke. Oraingo fikzio ethnographikoak aurki zihurtasun historikoak dirateke. Heldu den antropologia futuristikoan gure oraingo iragan hurbilaz ospatzen ditugun gertakizunak, kultur historialariek dokumentatzen dituztenak, zehazki biziturik eta klarki frogatuak antropologoek *ethnographia* bilakatzen dituztenak, giza-kultur folklore dirateke.

Egungo museo ethnographikoak esperientzia teknologikoak dira. Historia/Memoria/Ospakizuna hirukote kognitiboa esperientzia teknologikoa da egun. Patriketako teknologia dira dantza eta bertsoa, soinu eta jantzia. In situ digitalizazioa da ospakizuna. Youtube. WhatsApp. Mezu. Esteka. Karga-ta- Deskarga. Irudi Ekaitza. Teknologia potlatcha.

Gorazarre dantzak eta bertsoak, soinuak eta jantziak techno-ezagutzak dira. Techno-oroitza. Techno-historia. Folklore dira. Edo, bir-folklore ote? Folklore dirateke. Apika, bir-bir-folklore. Techno-folklore, zihurrena.

Techno-folkloreaurrekoaren garaian bizi izan garela aldarrikatu dukete antropologo futuristikoek.

Zuzenbidea... Zientzia Politikoa... Historia...
Antropologia... Folklore... Teoria...
Praktika... Teoria... Praktika... Teoria...
Praktika... Zuzenbidea... Praktika... Zientzia
Politikoa... Folklore... Teoria... Histo-
ria... Praktika... Antropologia... Teoria...
Folklore... Oroitzapena... Folklore...
Ospakizuna... Techno-Folkloreaurrekoa...

Ethnographika-Aitzi. 


"Zalduondo Marquitos": Egun bateko pertsonai iragankorra etorkizunerako.



TXALAPARTA

EUSKAL ERRITMO ETA SOINU TRESNA

- Egilea: Josu Goiri Iturrizar. -



Jose eta Jose Mari Zabalegi. Billandegiko txalapartariak.
Argazkia: Arturo Delgado. Euskonews utzitako argazkia.

Txalapartari buruz idaztea ohore haundia da. Bere inguruan partaidea eta batzutan sortzailea izan naiz. Ikerketa eta liburu oso onak atera dira txalapartaren inguruan eta ohol bat jotzeaz hasi zen soinu tresnatik, garapen eta proposamen bereziak sortu dira.

Zuaznabar anaiek eta Goikoetxea anaiek ohol bakarra jotzen zuten eta hirurogehigarren hamarkadan bikote bakarrak ziren. Martutenen Zabalegi anaia ere egon ziren baina anai bat hil zen eta Martutenen txalaparta ez zuten jo gehiago.

Txalaparta debekatuta egon zen eta oso gutxitan jotzen zuten. Baina sagardo inguruko jaietan eta etxean jotzen zuten.

Bi txalapartariak jotzen zuten eta erritmoak bi alditan banatzen ziren; batean txakun delakoa tinkoa eta bi kolpez errepikatzen zutela eta bestea herrenak bi kolpe, bat edo isilunea egiten zuela. Txakun onomatopeia bi kolpez egiten zen eta sortzen den beste aldian herrenak batzuetan

herrenka edo txakunaren oreka bultzatuz jotzen zuten. Josean Artzek helbururen bat zaldiaren imitazioa zela aipatu zidan.

Artze anaiek bultzada berezia eman zuten, tresna zaharra naturalki abangoardia gunetan sartuz, eta bide berriak eta aukera gehiago sortu zituzten.

Beraz, hasieran bi lotura bereziak elkartu ziren. Batetik, txalaparta oso aintzinetik jaso duguna Zuaznabar eta Goikoetxea anaiei esker; eta beste aldetik, bide berriak aztertzen eta sortzen oso bereziak izan ziren Josean Artze eta bere anaia Jesús egon ziren.

Aintzinako tresna esparru askotan agertzen hasi



*Txalaparta. Beti Jai Alai dantza taldea.
Arg.: Emilio Xabier Dueñas.*

zen eta bi bereziak aipatzeko, Iruñeko topaketak eta orkestrarekin Luis de Pablosek egin zuen *Zurezko olerkia* aipatu behar ditut.

Iruñeko topaketetan 1972. urtean Artze anaiak jo zuten eta, besteak beste, Jhon Cage eta Steve Reich egon ziren. Steve Reich konposatzaile garaikideak txalapartaren ikustea, bere konposizio bat sortzeko berezia izan zela geroago aipatu zuen.

Luis de Pablosek konposizio berezia egin zuen. Orain dela gutxi (aurten) berriz jo dute *Zurezko olerkia* delako konposizioa.

1975ean egin zuen konposizioa Luis de Pablosek eta txalaparta beste perkusio tresnekin naturalki nahasten zen.

Josean Artzek bere ikuskizun berezietan txalaparta sartu zuen eta benetan oso polita geratzen zen.

Jesús Artzeren eskutik txalapartan oinarritutako lehenengo disko osoa sortu zen. Disko honetan Andoni Alemanarekin batera txalaparta basoan sartzen da eta ohiartzun bereziak ekartzen dizkigu.

Mikel Laboarekin Jesusek lotura bereziak sortu zituen; adibidez, *Itsasoa eta lehorra* abestian.

Bideak eta frogak zabaltzen ari ziren, eta frogen bitartez txalaparta aldatzen eta moldatzen hasi zen. Hasiera batean ohol bat bakarrik zegoen eta oinarri erritmikoak txakuna eta herrena hasieran bi kolpez edo gutxiagoak egiten zena. Bi kolpe baino gehiago sartuz hasi ziren egiten. Hau da aldi batetan bi kolpe baino gehiago sartzen hasi ziren,

txalapartari zaharrek inoiz ez zuten sartu, bi kolpe edo gutxiago sartzen jarraitu zuten.

Zabalpen honetan dantza taldeak oso garrantzitsuak izan dira. Hasiera batean txalaparta ohol bakarrekin hasi ziren jotzen eta bere ikuskizunetan honela sartzen zuten.

Baina denboraz beste txalapartariak bezala ohol gehiago eta beste itxura batez hasi ziren sartzen. Jesús Artze izan zen lehen honelako aldaketak sortzen eta nolabait txalaparta garatzen, ohol gehiago sartuz, kolpe gehiago eta abar.

Beste aldetik, Araban, Gerla beti taldeak material desberdinak nahasten zituen. Zura sartzeaz gain, burdina eta harria sartu zituzten. Burdina tobera delako tresnatik hartu zuten eta Harria behin ikusita frogatu eta harbelak sartu zituzten.

Emaizta ikusgarria zen eta akustikoki eta erritmoa aldetik aukera askoz gehiago sortu ziren. Musikako erritmoetan sartzeko txakuna zabaldu zen arin arinetan sartzeko adibidez.

Honela laurogeigarren hamarkadara heltzen gara. Aukera berriak, esparru berriak eta txalapartari asko sortzen ari dira. Batzuetan ematen zuen dena balio zuela eta honela askok askotan jotzen zuten, eta neurririk gabe edo irizpiderik gabe, baina txalaparta leku askotan agertzen zen eta jende asko dardarka jartzen zuen.

Jaietan edo ikuskizun askotan hasi zen txalaparta eta baita ere presoan omenaldietan edo ezkontzetan adibidez. Askatasun hau ondo zegoen txalaparta zabaltzeko, baina txalaparta zer den eta nola jo, aztertzen ari zen eta mugak eta aukerak sortu ziren.

Aipatu dudan moduan txalaparta, dantza talde askotan erabiltzen zen. Dantza taldeetan baten batek txalaparta ikasi zuen edo bestela herriko txalaparta taldeak dantza taldean jotzen zuen. Dantzaren inguruan txalaparta beti eroso egon da.

Ordurarte txalaparta imitazioz ikasten zen. Nik adibidez txalapartari zaharregina joan eta hauekin batera jotzen ikasi nuen. Hemendik

eskerrik beroenak Zuaznabartarrei beti onartu eta haiekin egoteko aukera eman zidatelako. Beste batzuek inprobisazioan nahi zutena egiten zuten, baina musikarekin batera jotzeko eta joaldi egituratuta egiteko irizpideak bilatzen eta sortzen ari ziren.

Baina bata eta bestea maisuki Hernaniko txalaparta festan dastatu ahal izan dugu.

Batetik txalaparta zaharra eta bestetik frogak berriak eta garapenak. Juan Mari Beltranek honelako topaketa berezia sortu zuen eta berari esker ikerketa eta garapen bereziak sortu dira.

Larunbateko saioetan Euskal Herriko txalapartariak jotzen zuten, baina Larunbateko saioari hasiera emateko txalapartari zaharrek joaldi berezia jotzen zuten. Peio Zuaznabar eta Ramón Goikoetxea bikoteak jotzen zuen.

Hor txalapartari askok jo dugu eta geneukana erakusten genuen eta besteok egindakoa jaso ere bai. 1987. urtean hasi zen Txalaparta Festa eta txalapartaren garapenerako topaketa berezia izan da.

Gero Sestaon, Algortan, Gasteizen, Iruñean eta hainbat herritan topaketak egon dira. Topaketa horiek biltzeko aukera ematen zuten eta txalapartaren indarra azaltzeko eta garatzeko ezinbestekoak izan dira.

Algortako topaketa Azebarri kultur elkarte

Tresna aldatzen hasi zen eta zutoki berriak eta materialak aldatzen eta moldatzen hasi ziren; ohol gehiago, burdina eta harria iadanik joaldietan normala zen. Ohola afinatzea zailagoa zen eta normalean musikarekin nahastean erritmikoki laguntzen zuen baina ez melodikoki. Zurak adabegiak dauzka eta nota zehatza ematea zaila da.

Honela laurogeita hamargarren hamarkadan sartzen gara; aldaketa pilo bat, txalapartari ugari eta txalaparta ikertzeko eta bide berri batzuetan sakontzeko urte onak. Beraz hamarkada

honetan ikerketak landu, kontzeptuak mugatu eta txalapartan aukera gehiago sartu ziren.

Alde batetik, txalaparta mugatzeak beste esparruetan sartzeko aukera eman zion, baina era tinko batez jotzeak, jolasa eta frogak mugatzen zituen. Txalaparta jotzea zailagotzen zen eta alde batetik ona izango da. Baina txalapartaren oinarri errezak, jende askok ikasi ahal ditu. Txalaparta zaharra erreza zen eta sortzen den jolasa eta komunikazioa berezia da. Zailagoa jotzea polita da, baina komunikazio joko hori zailagotzen du, nahiz eta komunikazioa izan.

Hernaniko txalaparta festan ondo nahastu zen. Gauza landuta, proposamen berriak landu eta azaltzeaz gain, bazeuden ere edonork joaldi libreak jotzeko aukerak.

Txalaparta musikoterapiaren ere sartu zen. 1991. urtean Madrilgo nazioarteko musikoterapia topaketetan, Aitor Loroñok lagunduta, txalapartari buruzko aurkezpena egin nuen. Musikoterapiaren oinarriak hartuta, txalaparta tresna terapeutiko moduan erabiltzen zen, komunikazioa sortzeko eta gorputza askatzeko. Txalaparta jotzea eta bere dantzari sartzeko, komunikaziorako lagungarria izan zitekeen; halaber, sendatzeko edo sendabidean sartzeko ere baliagarria zen.



Basauriko Dantza Agerketa.
Arg: Agintzari dantza taldea



Eusko Jaurlaritzak Eibarren txalapartariei emateko gaitasun agiria eta edukiak prestatzeko, txalapartariak bildu zituen. Musika ikasketak emateko agiria eman ziguten eta txalaparta erakusteko oinarriak ere landu genituen.

Hortik ikerketa batzuk sortu ziren eta nik 1994. urtean txalapartari buruzko liburua atara nuen.


Bordelen Atelier de la musikoterapiak frantsesez argitaratu zuten eta txalapartaren bidez musikoterapiarako bideak aztertzen zituzten.

Ikuskizun handiak hasi ziren egiten. Nik neuk Arrigorriagan, 1995. urtean Donibane gauean, Maskaradan oinarritutako ikuskizuna antolatu nuen. Gizaki baten jaiotza eta hezipena sua eta uraren artean isladatzen zen. Euskadiko Baletako dantzariak, Maskaradako Zamalzain eta Txerrerorekin artean jaio eta bizitzaren aldiak dantzatu zituen. Donibane gau magikoan sua eta zanpantzarrak hasi ziren gero ikuskizunean garatu zena.

Karmelo Bernaolak Sabino Aranaren ehungarren urtemugan musika konposizioa egin zuen. Aurretik Francisco Escudero bere *Zigor* operan txalaparta sartu zuen. Aurretik aipatu dudanez Luis de Pablos-ek Artze anaiekin *Zurezko olerkia* egin zuen. Oraingo honetan Karmelo Bernaolak txalaparta sartu zuen. Juanjo Menak zuzendu zuen eta Bilboko Orkestrak txalapartari lekutxo egin zion. Nirekin Ozerinjauregi anaiak egon ziren Josu eta Aingeru.

Txalapartaren inguruan eskulturak eta eskultoreak hasieratik egon dira. Remigio Mendiburuk Zuaznabartarrak Madrilgo galeria batera eraman zituen. Nestor Basterretxeak *Ama Lur* filman sartu zuen.

Remigio Mendiburuk txalaparta izena zuen eskultura egin zuen. Gorritik ohol batean makil asko jarri eta hor geratu ziren. Bere txalapartari buruzko eskulturan, Agustín Ibarrola trabiesen bitartez txalapartaren mugimenduan sartzen zen.



Txalaparta CD-etan agertzen hasi zen. Hasiera batean, txalapartari zaharrak grabatu zituzten eta Artze anaiek grabaketa bereziak egin zituzten. Baina orain txalaparta egitura musikaletan sartzen ari da, eta oinarria eta garapen bereziak egiten dira. Tomas San Miguelek *Lezao* CD-a atera zuen eta Gerla Betiko txalapartariekin kanta bereziak sortu ziren. Txalaparta kobeetan sartzen da (*Lezao* koba da), eta aintzinako garaietan sartzen da baina proposamen berriei eta musika garaikidearekin sortu zen; berezia zen.

Joxan Goikoetxeak eta Juan Mari Beltranek disko berezia atera zuten. Sagardoan eta bere munduan sartzen gaitu, txalapartaren soinu sakonetan sartuz.

Txalaparta musikan sartzeko moldatzen da eta adabegi gutxiko oholak prestatu eta afinatuta agertzen da. Horretarako berriz ikerketak eta froga ugari egiten ari dira.

Francisco Javier Sanchez madrildarrak Juan Mari

Beltranekin batera ikerketa akustiko berezia egin zuen.

F. J. Sánchez-ek Madrilgo CSIC institutukoan soinuaren transmisioa oholetan ikertu zuen eta irizpide bitxiak atera zituen. Jadanik txalaparta edonon jotzeko eta edozein aukeratan sartzeko aproposa zen.

Horretarako beste topaketa berezi bat aipatu behar da: Portugaleteko azoka.

Topaketa honetan tresnen egileak elkartzen dira eta bere tresnak azaltzeko aukera dago. Iritziak eta moldaketa berriak ikusteko aukera dago.

Artisau asko dago gaur egun. Iker Diez horietako bat da. Zeanurin bere tailerrean zurak moztu, moldatu eta lixatu egiten ditu.

Ohola handiagoa bada soinua lodiagoa da eta txikiagoa bada soinu zorrotzagoa. Oholaren luzera, zabalera eta adabegien

Bilboko orkestra Carmelo Bernaolak Sabino Aranaren urtemugan egindako konposizioa. Sabino Arana fundazioak utzitako argazkiak.



kokapena edo ahalik eta gutxien edukitzea kontuan hartzen ditu.

Txalaparta egitea gaur egun zaila da. Baina aintzinean jolasa zen. Ohola hartu eta noski ozena bazen, garbia edo hobeagoa garrantzitsua zen, baina garrantzitsuena dardaran jartzea zen. Batzuetan edonon topatutako ohola erabiltzen zen. Adabegi asko normalean, beraz nota afinatuta edukitzea zaila zen.

Txalaparta jotzea materialarekiko jolasa izan daiteke; lehen txalapartari askok bere txalaparta egiten zuten. Gaur egun jolas hori egitea interesagarria izan daiteke. Beste musika tresnekin jotzeko gure artisauengana joatea komenigarria da.

Iker Diez Zeanurin dago baina beste batzuk badaude. Osses artisaua Arabako Otazun dago. Gainera txalaparta txikiak eta etxean jartzeko edo jotzeko artisau batzuk sortu dira; adibidez, Julio Molinuevo Baztanen.

Txalaparta hasieran zurezkoa zen. Baina harria eta metala erabiltzen hasi ginen.

Tarragonan beirazko txalaparta egin dute. Nando Taló eta Siscu Aguilera beira probatzen ari ziren. Lehenengo materiala desberdinak frogatu eta aukeratu eta gero tamainaren arabera afinatuta. Emaizta berezia eta bitxia.

Beste froga batzuk egin dira, baina bitxiena Oreka Tx-ak egin du. Bidai batean izotzazko txalaparta egin zuten.





Iker Diez. Euskonews argazkia.



Juan Antonio Alaña en Kemper.

Txalapartarekin batera, adarra askotan jotzen da. Araban artisau berezia dago Juan Antonio Alaña. Adarrak bereziki burdinez lantzen ditu eta olerkiak eta marrazkiak jartzen ditu. Soinu bereziak lortzen ditu Bere adarrak handiak izaten direlako eta sakontasun berezia daukatelako.

Hamarkada honetan kanporako bidaiak, European zehar, ugariak dira eta beste herrialdeetako musikariekin harremanak hasten dira.

Beraz sormena eta emaitzak ugari eta oso onak dira. Oinarriak finkatuta musikari onak eta txalapartari trebeak lotzeko aukera eman zen eta aukera ugari eta onak garatu ziren.

Antonio Gamezek nire gaztelaniazko liburuaren aurkezpena egin zuen eta naturalki txalaparta beste erritmoekin nahasten du. Bere *Taller de percusión* delakoa, Madrilgo Goiri kalean dago.

Txalaparta festan ezagutu nuen, Peio Añorga ipuinkontalariarekin zegoela.

Madriren txalaparta ikastaro berezia antolatu zuen 1999. urtean. Madriletik hurbil zegoen menditxoan txalapartaren soinuak eta harremanak aztertu genituen. Meditazioa eta komunikazioa landu zen eta lotura politikak sortu ziren.





Kirikoketa. Arg: Hutsun txalaparta taldeak utzitako argazkia.

Raphael Parejok *La txalaparta de los Andes a Euskadi* ikerketa berezia egin zuen. Raphael Parejok txalapartaren inguruan Etzak etsi txalaparta taldearekin ikerketa bitxia egin zuen. Ikerlari berezia eta sentiberotasun onarekin zen. Loturak, erabilpenak eta irizpide onak lotu zituen.

Hernaniko Txalaparta festan behin Baztandik proposamen berezia etorri zen: Kirikoketa.

Kirikoketa sagardo jaietan ikusi ahal dugu. Baztanen udazkenean, topaketa berezia egiten dute.

Beraz txalapartan osagarri bereziak biltzen dira eta edonon sartzeko prest dago, moldatzen da, aldatzen da, baina hortxe badago txakuna, aldikatzearena, zura jotzea.

Aurrera eta aurrera, milurteko berrian sartzten gara. Benetan beste aurreko ikerketak, joaldiak eta garapenen loraldia.

Oreka TX eta Kepa Junkeraren *Bilbao hora cero* diskoan sormen eta aukera bereziak agertzen dira, gainera asko zabaldu zen eta nazioarteko zabalpen handia eduki zuen.

Gero Oreka TX-ak *Nomadak* filman agertzen den moduan txalaparta leku desberdin askotan jo zuen.

Oreka TX txalaparta taldea orkestrarekin eta mila guneetan sartzten da.

Txalaparta, habil mundu guztira! esan daiteke, Etxepareren kantak euskarari esaten dion moduan.

Kalakan Iparraldeko talde bereziak Madonarekin jo zuen. Madonarekin biran jo zuten eta oso entzutetsua izan da. Nazioartean ibiliak dira eta proposamen bereziak dauzkate.

Etxebarria abizeneko eibartar diseinatzaileak New Yorkeko moda astean txalaparta bere jantzien ikuskizunean sartu zuen.

Hungarian Talamba taldea dago. Beste perkusio tresnekin txalaparta sartzten dute eta soinu bitxiak ateratzen dituzte.

Txalaparta ez da Euskal Herrikoa bakarrik munduan zehar ezagutzen ari da eta beste frogak eta besteekiko tresnekin nahasketak sortzen ditu.

Espainian bertan talde asko sortzen dira eta naturalki sartzten dute.

Tarragonako txalaparta taldeak Kepa Junkerarekin jo zuen bira batean. Gainera bidriozko txalaparta landu zuten. Tarragonako txalaparta eskola aurrera eramaten dute eta Katalunian eta beste lekuetan jotzen dute.

Madriilen Aitor Beltranen bitartez txalaparta taldea sortu zen. Bere maisutasuna Madriilen agertu zen eta txalapartari desberdinak sortu dira.

Madriilen ere Antonio Gamezek txalaparta lantzen du. Hernaniko Txalaparta Festan ikasitakoa, Peio Añorgaren bidez bere perkusio eskolan txalaparta jotzen hasten da. Beste munduko erritmoekin nahasketa bereziak egiten ditu.

A Talamba különleges hangszerei 1. rész TXALAPARTA

Baina garapen berezia Euskal Herrian sendotzen da.

Iparraldean lehenengo proposamenak Paskal Indo eta Txomin Larronderen eskutik etorri ziren.

Paskal Indo eta Txomin Larrondek sortu zuten Txakun taldeak jarraipena dauka eta beste talde bereziak sortzen dira.

Lehen aipatutako Kalakan taldeak perkusioa eta kantua txalapartarekin lotzen ditu. Proposamen bereziak eta politikak.

Ziburun txalaparta eskola dago. J. C. Enrique eta Txomin Dhers- Lopeteguy daude, 2000. urtean sortzen da eta Europan zehar eta Iparraldean zein Hegoaldean askotan jo dute.

Bere izena Ttikia ta Haundia Josean Artzeren olerkian oinarrituta dago.

Irakasle onak pasatu dira, besteak beste, J. M. Beltrán, Iñigo Monreal, Sergio Lamuedra, Eneko Abad, Felipe Ugarte.

2016. urtean diska bat grabatu zuten. Josean Artzeren ildoak jarraitzen dute bere hitzez, inprobisazioan sartuta txalapartari bien arteko elkarriketan oinarritzen dira.

Iparraldean beste topagune berezia Zuberoko Xiru jaialdia izan da. Michel Etchecopar-en eskutik urtero antolatzen dute eta txalaparta sartu da beti; adibidez, OIHANA AUHENKA sailan (2000 urtean), Josean eta Jesus

Artzeren presentzia izan zen behin baino gehiagotan.

Gasteizko Hust hots taldea ere joan zen duela urte asko; ederra izan zen, kontzertuak auzoko etxeetan...

Jean Claude Enrike eta Txomin Dhers lapurtarrekin ikastaldiak antolatu dira. Joanes eta Pette Etxebarria urte batzuetan Xiberoko Xirun ere egon dira.

Arabian txalaparta Gasteizko musika eskola sartuta dago. Karlos Subijana maisua dela, hogeitau urte baino gehiago dago lanean.

Handik Gerla Beti egon zen aspaldian baina gaur egun Ttukunak taldea eta Txalamako txalaparta taldea daude adibidez, txalapartaren soinu bereziak zabaltzen. Aipatzekoa da Kolpez kolpe Araia txalaparta Festa.

Urduñan zein Laudion dagoen Fitafik Euskal musika tresnen eskola orain dela 25 urte baino gehiago sortu zuten. Iban Fandiño sortzailea izan zen eta txalaparta ikasketak emateko Aingeru Ozerinjauregi deitu zuten.

Bizkaian topagune bereziak egon dira eta aipatzekoa da Sestaoko txalaparta eskola. Bertan Eneko Abad-ek eta beste irakasleek 25 urte baino gehiagotan ikasketa bereziak eta ekitaldi ugari antolatu dituzte.

Barakaldon Hala Dzipo taldea dago, eta Algortan Uktets txalaparta taldea ibilia da. Gaur egun Carlos Galanek urtero Azeberri kultur elkartearen topaketa bereziak antolatzen ditu.

San Mamesen atsedenealdian txalaparta txalapiratak jotzen du. Oso giro berezia sortzen da.

Nafarroan gaur egun Hutsun taldea dago. Hutsun taldea duela 9 urte sortu zen; Simon Ahetxu, Anai Gamba eta Mikel Urrutiaren eskutik.

Hainbat proiektutan parte hartu izan du. Adibidez LURRAK Antzerkia, Zirkua eta Musika 2017-

2019. 70 emanaldi inguru, Euskal Herrian, Espainian eta Europan (Frantzia, Eslovenia, Errumania, Txekiar Errepublika) egin dituzte.

Beste taldeekin ere egon dira; adibidez, Mikelats Dantza Taldearekin, Mielotxin Folk Taldearekin eta Koma (Metal estiloa) taldearekin. Sàid eta bere musikariak, Musika Gnawa direla, 2019an Elizondon eta Atarrabian egon ziren.

Bere proiektuak Txalaparta Hutsa izeneko kontzertu didaktikoa, Sagar Lantegia kale animazioa, Jazza....eta abar dira.

Baina nola eta han, Txalaparta kongresua antolatu zuten. Txalaparta kongresua 2015ean antolatu zen Jazar egoitzan (Iruñean) 15 ekintza inguru egon ziren: Master Classak, hitzaldiak, erakusketak, eztabaidak, afinazio tailerrak eta abar. Asteburu osoan 115 txalapartari inguru pasatu ziren.

Gipuzkoan jadanik Txalaparta Festa 25 urte baino gehiago ibilia da eta beste hainbat urtetan topaketa berezia izango da.

Milaka txalapartari on eta berezi batzuk aipa ditzakegu: Ugarte anaiak, Sergio Lamuedra, Iñigo Monreal, Juan Mari Beltranek egindako hainbat taldek eta noski Oreka Tx.

Atal honetan Juan Mari Beltranen *Txalaparta* izeneko liburua aipatu behar dut. Liburu garrantzitsua eta berezia eta txalapartaren informazio ona eta zabala dauka. Beraz Euskal Herrian txalaparta sendotzen da eta kalitatea zein kantitatea gero eta handiagoa da.

Unibertsitatean egindako ikerketek txalaparta ikertu eta aberastu egin dute.

María Escribano, Argibel Euba, Enrike Hurtado edo Laurita Siles adibidez txalaparta ikertu eta kokatu egiten dute.

*Jean Claude
Enrike eta Txomin
Dhers. Ziburuko
txalaparta eskola.*





Patxi Larralde eta Paxkal Indo. Xiru jaialdian.
Arg: Michel Etchecopar

Raphael Parejok ikerketa bereziak egin zituen. Orain ikerketak ikuspuntu desberdinetik sakonean hartzen dituzte.

Argibel Euba txalapartari oso ona da eta barruan egondako sakontasuna dauka. Bere ikerketak oso onak dira.

Laurita Silesek proposamen desberdinak landu ditu gainera, bitxiena txalamobil delakoa da.

*San Mamesen
atsedenaldian txalaparta
txalapiratak jotzen du. Oso
giro berezia sortzen da.*

Txalaparta San Mamesen
Arg: Andoni Vechio.



ZENTRAL



TXALAMOBIL FRANKFURTIK BERLINERA

FRANKFURT

Martxoak 21 de Marzo / Mittwoch, 21. März
 - Bornheim Berger Strasse: 14:00 - 17:00
Martxoak 22 de Marzo / Donnerstag, 22. März
 - Musikmesse Frankfurt: 9:00 - 12:00
 - Txalamobil Minisegia / Seminar: 18:00 - 21:00,
 INI - Institut für vergleichende Irrelevanz,
 Kettenhofweg 130

BERLIN

Martxoak 25 de Marzo / Sonntag, 25. März
 - Mauerpark: 12:00 - 14:00
 - Kreuzberg 15:00 - 17:00
 (Oranienstr., Götterpark und Umgebung)

Informations-Website: <http://txalamobil.blogspot.com>
 txalamobil@proton.ch / txalamobil@arcor.de / TX: 0012282 / 0174747000



EITB eta beste komunikabideen lana txalaparta kokatu eta irudian sartzeko baliogarriak izan dira. Euskonewsek artikulu asko eta hurbilketa ugari egin ditu. Honen inguruan Soinuenea proiektua aipatu behar dut. Artxiiboak lantzeaz gain, proposamen eta ekitaldi ugari egiten ditu.

Honen inguruan Oscar Tejedorek egindako lana aipagarria da. *Txalaparta. Herri baten oihartzuna* izena duen dokumentalak Gregory Antipas frantsesak eginitako txalapartari buruzko begirada hartzen du.

Gregory txalaparta esparru desberdinetan mugitzen da eta bere bitartez kanpotar batek zelan ikusten duen txalaparta azaltzen du.

Begirada berezia eta gustoz eginda (2000. urtean) garai horren inguruko funtsezko dokumentala da. Gregory gainera txalapartarien inguruko tesia egin zuen Frantziako unibertsitatean eta Frantziako Nizan bizi da.



Ugarte anaiak . Arg: Euskonews



*Musikoterapia. Atelier de la
musikoterapie Bordeaux.*

Bordelen ere musikoterapian txalaparta kontuan hartuz hasten dira. Nire liburuaren bigarren edizioa egiten dute eta txalaparta terapietan sartzeko tresna bihurtzen da.

Nire liburuaren bigarren edizioa egin dute eta urtean behin txalaparta Bordelen kontuan jartzen dute terapietan zelan sartu ikertzeko.

Donostian masai berezia eskeintzen da. Donostiako *Yo Salud Estética* zentroan bambu makilak erabiliz masaia egiten dute. Txalaparta masaia deitzen dute eta makilen mugimendua jarraituz masaia egiten dute.

Algortan Peio Santillanek txalaparta eta meditazioa lortzen ditu. Txalaparta jotzearen bizialdia barneratzeko eta dardaratzeko erabiltzen dute.



*Txalaparta eta meditazioa.
Arg: Peio Santillane.*

Proposamen berezia Peiorena eta txalaparta barneratzeko. Bere barnea ezagutzeko bidaia proposatzen du.

Adarraren bitartez gorputzean oreka eta dardara berezia sortu ahal ditugu.

Gorputzean erdiko ardatzean eraginez gorputza erlajazioan sartu ahal dugu eta sendatzeko bidean lagundu.

Herri txiki infernu handi EITBeko Saioan Pagadik honelakoa jaso zuen eta disfrutatu ere egin zuen.

Txalaparta Euskal Herrian sendotzeaz gain, munduan zehar badabil eta munduko tresnetan lekutxo egiten ari da. Txalaparta arabieraz Zian Mohamedek Algerian argitaratutako liburua (Josu Goiriren liburuaren itzulpena). Ingrid eta Raphael Parejoren Txoke elkartearen bitartez sortu zen aukera eta iadanik kalean dago.

Txalaparta Euskal Herrikoa da eta zorionez sendo eta indartsu dago. Munduan zehar zabalpen handia dauka eta beste munduko tresnekin ondo moldatzen da. Ea askotan ikusten dugun eta dardarka jartzen gaituen. 𐌹𐌿𐌺𐌹𐌸𐌰



Txalaparta arabieraz.

Zian Mohamedek Algerian argitaratutako liburua.



Herri txiki infernu handi. Josu Goiri Pagadirekin.. EITBk utzitako argazkia.

LA TXALAPARTA COMO ESPECTÁCULO

- Egilea: Josu Goiri Iturrizar. -



Zuaznabar.

La txalaparta es un instrumento que es fácil de introducir en espectáculos. Su porte y forma de tocar son un espectáculo en sí y como elemento de la cultura vasca se ha utilizado de múltiples maneras.

La forma de tocar produce una alternancia de los txalapartaris y mientras uno toca y baja sus makilas para percutir en la madera el otro sube las suyas para preparar su percusión.

Esta alternancia provoca un movimiento y una coordinación entre los que tocan similar a una danza entre ellos y visualmente transmite mucha fuerza además de la vibración y el sonido.

Además los cestos y las hojas de maíz hacen que estéticamente el todo sea muy atractivo y llamativo. La txalaparta sola y en su sencillez puede transmitir una vibración en todos los sentidos muy especial.

Además a veces se acompaña por cuernos y la voz repitiendo la onomatopeya de lo que se toca a través del txakun o emitiendo un podero-

so irrintzi. Según la situación y lo que se transmite, emoción segura y buena conexión.

Pero desde de este esquema antiguo la txalaparta se ha ido adaptando desde los soportes para sujetar la madera que se percute con los bastones o makilas, y permitir que esta se mueva y vibre, a la introducción de más tablores para acompañar no solo rítmicamente sino melódicamente, a cualquier instrumento o melodía.

Como en otras muchas otras facetas de la cultura vasca desde el principio los grupos de danzas, han recogido integrado y transmitido la txalaparta dándole un espacio y resonancia que ha permitido su expansión y conocimiento por la sociedad vasca en general.

Los grupos de danzas primero adoptaban el formato original de cestos y hierbas o incluso a veces pieles de ovejas etc.

Este último quita un poco la vibración ya que es absorbida por la piel el sonido del tablón, pero estéticamente es muy bonito y el uso de micrófonos compensa esta pérdida de sonido.

Además dentro del repertorio de danzas vascas algunas como la makil dantza o los paloteados directamente, son percusión de makilas o palos, por lo que siguiendo el ritmo la txalaparta puede acompañar la percusión que se crea en la danza. En otro tipo de danzas la txalaparta puede hacer la función de un atabal, tamboril o pandereta y encajar sus ritmos en los esquemas rítmicos fácilmente. En el arin arin al ser este de 2 x 4 abrir un poco el txakun y meterlo en uno de los tiempos puede facilitar su encaje. El herrena puede ir en el otro tiempo haciendo dos golpes como el txakun, uno o silencio. Para otros tiempos el llevar el pulso con el herrena y encajar la alternancia de la txalaparta puede ser fácil. Es decir la txalaparta puede ser otro instrumento de percusión que acompañe a las danzas.

Desde un primer momento la txalaparta además de ser utilizada por grupos de danzas y escuelas de txalaparta también empieza a ser considerado como parte importante de espectáculos, como hilo conductor y referente.



Cuerno y txalaparta. Foto: E. X. Dueñas.

